

Asier ARANGUREN OKIÑENA

# EUSKARA

## EUSKARA ETA GAZTELERA: KODE ALDAKETA ETA KALKOAK IRUÑERRIKO LEHEN HEZKUNTZAN

TFG/GBL 2014



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua  
Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**EUSKARA ETA GAZTELERA: KODE  
ALDAKETA ETA KALKOAK  
IRUÑERRIKO LEHEN HEZKUNTZAN**

Asier ARANGUREN OKIÑENA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA  
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea**

Asier ARANGUREN OKIÑENA

**Izenburua**

Euskara eta gaztelera: kode aldaketa eta kalkoak Iruñerriko Lehen Hezkuntzan

**Gradu**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

**Ikastegia**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria**

Orreaga IBARRA MURILLO

**Saila**

Euskara eta bere didaktika

**Ikasturte akademikoa**

2013/2014

**Seihilekoa**

Udaberria

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Oinarrizko prestakuntzako modulua osatzen duten ikasgaiek laguntza eskaini didate lan hau burutzerakoan, nahiz eta hauek lan honetan agerpen zuzenik ez izan. Ikasgai guztiekin ikasi dut eta hauetatik bat ezingo nuke aukeratu, izan ere ikasgai bakoitzetik ezaguera desberdinak lortu baititut. Urte hauetan zehar lortutako jakintza hauek baliagarriak izan zaizkit lan hau egiterakoan. Landutako gai hauek ez dira lanaren atal ezberdinetan bereizten, hau da, lan osoan zehar agertzen dira.

Didaktika eta diziplinako moduluak eta hari dagozkion ikasgaiek laguntza handia eskaini didate lan honen marko teorikoa osatzeko unean. Klase teorikoetan landutako hainbat eduki, hala nola, perpaus motak edo gaztelertatik hartutako kalko okerrak, oso baliagarriak izan zaizkit teoriaren atala idazteko orduan. Hori dela eta, modulu honen ekarpenak gehien bat aipaturiko atal horretan antzeman daitezkeela esan dezaket.

Halaber, Practicum modulua proiektua egiterakoan funtsezko faktore bat izan dela esan dezaket. Practicum-ak egunero klaseetan egon eta aldi berean datuak jasotzeko aukera eman dit. Praktikek hurrekin ikasturtearen zati bat haiekin igarotzea eta modu horretan egoera desberdinak bizitzeko aukera eskaini didate. Esan beharra dago, eskola praktika aldirik gabe, ezinezkoa izango litzatekeela horrelako corpus-a osatzea. Aipatu beharra dago, jasotako esaldi zein elkarrizketak Practicum-aren emaitzen bidez lortuak izan direla eta hortxe ikus daitezke, hain zuzen ere, eskola praktiken ekarpenak.

Lana euskaraz idatzia dago, hala ere, gaztelaniaz idatzitako honako lau atal desberdin hauek aurki ditzakegu: laburpena, lanaren helburuak, eztabaida eta azkeneko puntua, hots, ondorio orokorrak.

## Laburpena

Proiektu honen xedea euskara eta gaztelaren arteko elkarreraginagatik sortutako hizkuntza interferentziak aztertzea da. Lanak, bereziki honako bi fenomeno hauetan sakonduko du: kalkoak eta kode aldaketak. Behaketak 2014. urtean eta D ereduko Barañainen kokaturiko eskola batean burutu dira, hain zuzen ere, 3. mailako ikasgela bateko hurrekin. Metodologia desberdinen bitartez eta ikasleen ahozko zein idatziko produkzioekin, corpus bat osatu eta haren analisia egin da. Lanean azaltzen diren adibide desberdinekin argi geratzen da zein den aipatutako haur hauen euskara maila eta baita haien hizkuntza nagusiak euskaran duen eragina ere. Egun, testuinguru honetan heziak diren haurrak nola ari diren euskara ikasten aztertzea oso lan interesgarria suertatzen ari da.

Giltza-hitzak: *euskara/gaztelania; kalkoa; kode aldaketa, hizkuntza mailegua, elebitasuna.*

## Resumen

El principal objetivo de este proyecto es analizar las interferencias lingüísticas que se producen fruto de la interacción entre el euskera y el castellano, centrándose especialmente en: los calcos y el cambio de código. Las observaciones se han llevado a cabo en el año 2014, en una clase de 3º de primaria del modelo educativo D y situada en un colegio de Barañain. Mediante distintas metodologías y basándose en sus producciones tanto orales como escritas se ha formado un corpus y se ha procedido a realizar su análisis. Con los ejemplos presentes en el trabajo, queda retratado qué nivel de euskera tienen y la influencia del castellano sobre él. En el momento presente, es un estudio realmente interesante examinar cómo es el proceso de adquisición y de afianzamiento de la lengua vasca en este contexto.

Palabras clave: *vasco/castellano; calco; cambio de código; préstamo lingüístico; bilingüismo.*

## **Abstract**

The main objective of this project is to analyze the linguistic interferences that appear from the interaction between the Basque and Spanish languages. In this project we focus on these two phenomena: the loan translations and the code switching. The observations were carried out in 2014, in a class of D educational model with children in 3<sup>rd</sup> grade of Primary Education in a school located in Barañain. Using different methodologies and based on the oral and written productions of pupils, we have formed a corpus and proceeded to make its analysis. With the examples present in the work, is portrayed very clearly which is the real level of Basque language in these pupils and the influence that their main communication language has on it. Nowadays, it is a really interesting study to examine how is the process of acquisition and consolidation of the Basque language on children educated in this context.

Keywords: *Basque / Spanish; calque; code switching; linguistic borrowing; bilingualism.*



## **Aurkibidea**

<b>1. Sarrera</b>	<b>1</b>
1.1 Aurrekariak	1
1.2. Objetivos	4
1.3. Cuestiones	5
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>6</b>
2.1. Kalkoak	6
2.2. Kode aldaketa	16
2.3. Curriculumarekiko lotura	19
<b>3. Eskola eta ikasgelaren deskribapenak</b>	<b>23</b>
3.1. Eskolaren deskribapena	23
3.2. Ikasgelaren deskribapena	24
<b>4. Hipotesiak</b>	<b>29</b>
<b>5. Metodologia</b>	<b>31</b>
<b>6. Lortutako datuen behaketa eta hauen ondorio zehatzak</b>	<b>35</b>
6.1. Galdetegiaren analisia	35
6.1.1. Lehenengo perpausa	36
6.1.2. Bigarren perpausa	38
6.1.3. Hirugarren perpausa	39
6.1.4. Laugarren perpausa	40
6.1.5. Bosgarren perpausa	41
6.1.6. Seigarren perpausa	43
6.1.7. Ondorio zehatzak	44
6.2. Gainontzeko corpus-aren analisia	46
6.2.1. Kode aldaketa	46
6.2.1.1. Hitz gakoak	46
6.2.1.2. Esaldi tartekoa	49
6.2.1.3. Esaldi barnekoa	50
6.2.2. Kalkoak	54
6.2.3. Ondorio zehatzak	61
<b>Conclusiones</b>	
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b>	
<b>Eranskinak</b>	
1. Galdetegiaren eredua	
2. Ikasleen erantzunak	



# 1. SARRERA

## 1.1. Aurrekariak

Euskara bizirik dirauen Europako hizkuntza zaharrenetariko bat dugu, honek ez baitu inolako aitzindari edota ezagun den ahaidetasunik. Europako hego-mendebaldean du bere jatorria, Pirinioetako alde bietan, eta inguruko hizkuntzekin erlazionatuz joan da, bereziki latinarekin eta hizkuntza erromanikoekin. Hala ere, egun beste bi hizkuntzekin etengabeko harremanetan jarraitzen du, alde batetik gaztelania eta bestetik frantsesa.

Euskararen historian murgiltzen bagara, zonalde esanguratsu bat Nafarroa izan dela ikus genezake, bertan betidanik hitz egin baita euskaraz. Bere historian zehar garai oso desberdinak bizi izan ditu euskarak.

Aitzinetik euskara izan da nafarren hizkuntza, bai herritarrena eta bai klase agintariarena ere. Nafarroako erregeen hizkuntza izatera heldu zen eta ospe handiko hizkuntza, Nafar erreinu osoan hitz egiten baitzen. 1512ko Nafarroako konkista ospetsuarekin, ordura arte euskarak gozaten zuen egoera itzela bertan bera suntsitua izan zen. Nafar erreinuaren galerarekin, euskarazko liburuen argitaratzean mendeak iraungo zituen etenaldi bat sortu zen eta horrek geldiuene esanguratsu bat ekarri zuen hizkuntza honentzat. Okupazio militarren aurretik euskara esparru desberdinetan agertzen zen, esate baterako gai zientifikoetan, filosofikoetan, erlijiosoetan, e.a. Geldiuene honekin mundu literario zein zientifikoa euskaratik aldentzea eragin zuen eta egoera horretatik euskara hizkuntza bezala, erabat kaltetuta atera zen.

Nafar erreinuko konkista gertatu aurretik euskarak momentu bikainak bizi izan zituen, baina egoera horiek ez zuten zer ikusirik etorkizunean espero zitzaionarekin. Agintarien klaseak mesprezua erakutsi zuen hizkuntzarekiko eta etengabeko erasoak jasan behar izan zituen “lingua navarrorum”-ek. Nafarroako historialari eta etnografo ospetsu baten hitzetan:


“[...] XVI. mendetik aurrera, Nafar erreinuaren galerarekin euskara, nafarren berezko hizkuntza, gutxietsia eta gizartetik baztertua izan zen hizkuntza konkistatzailearengatik; hau da, gaztelaniarengatik.” Jose Maria Jimeno Jurio (1997)

Nafar erreinuko hegoaldean euskaraz mintzatzen zela adierazten duen garai hartako dokumentu bat aurkitu zen. Testu horretan bertan, baieztatzen da euskara zela Erriberako hizkuntza. Beraz hau guztiarekin esan genezake garai batean Nafarroa osoan euskaraz hitz egiten zela, Erribera barne, nahiz eta honek gaztelarekin harreman zuzenagoa eduki. Lurralde horiek denborarekin elebidunak bilakatu ziren, bertan jendeak euskaraz mintzatzen jarraitu zuen gaztelania inposatu eta honek euskara zanpatu zuen arte.

Egoera hori egun arte mantendu da Nafarroan eta gaztelania da egungo Nafarroako biztanle gehienek hitz egiten duten hizkuntza. Azpimarratzekoa da, 1986. urteko Euskararen Foru Legeari esker, euskara Nafarroako zati batean hizkuntza ofiziala bilakatu zela. Onartutako lege horrekin, Nafarroa hiru eremutan sailka daiteke:

- *Zonalde euskalduna.* Zonalde honek 61 udalerrri ditu, Nafarroako iparraldeko zonaldeari deritzo eta euskara hizkuntza ofizial moduan onartua dago. Bertan bizi diren biztanle gehienak euskaldunak dira eta Nafarroako biztanleriaren %9-a irudikatzen du.
- *Zonalde mistoa edo erdialdeko zonaldea.* Nafarroako populazioaren %54-a zonalde honetan bizi da eta Nafarroako ipar-ekialdea eta erdialdea hartzen ditu, bere hiriburua, Iruña, barnean hartuz. Euskarak ofizialtasun maila bat du zonalde honetan, baina ez zonalde euskaldunak duen bezalakoa.
- *Zonalde ez euskalduna.* Nafar biztanleen % 37-a zonalde ez euskaldunean bizi da, eta honek Nafarroako hegoaldea hartzen du bere baitan. Euskara ez da hizkuntza ofiziala eremu honetan eta beraz, euskarazko hezkuntza jaso nahi duenak, ezin du hezkuntza publikoaren bitartez jaso, ez baitute aukera hori eskaintzen. Dena den, ikastolek

zonalde ez euskaldunetan lan egiten dute euskara bultzatzeko eta euskaraz ikasi ahal izateko aukera eskaintzeko.



### 1. Irudia. Nafarroako zonaldeak Foru Legearen arabera

Gai honek eztabaida sozial indartsua sortzen du Nafarroan, izan ere euskara erabat ofiziala ez izatea erabaki politikoa baita. Alderdi politiko batzuk euskararen normalizazioaren aurkakoak dira, eta alderdi hauek parlamentu-gehiengoa dutenez euskararen bazterketa sustatzen duen politika defendatzen dute. Gizarteko beste sektore batzuek ordea, euskara Nafarroako ondare kultural gisa ulertzen dute, eta nahiz eta gehiengoa gazteleraz mintzatu, euskaldunek eskubide berak dituztela defendatzen dute, euskararen aldeko politika egoki bat aldarrikatuz.

Euskara horrelako gai garrantzitsu bat izanik, eta gaztelerarekin aspalditik edukitako elkarreragin egoera dela eta, pentsa dezakegu historian zehar gure gaiari buruzko ikerketa ugari egin direla. Nahiz eta gehiengoak 90ko hamarkadatik aurrera egindakoak izan, ez dugu hainbesteko ikerketarik topatzen. Egile horien artean honako hauek nabarmenduko nituzke, haien

lanetan jasotako ekarpenak proiektu honetan behin baino gehiagotan azaltzen baitira: Juan Garzia, Orreaga Ibarra eta Karmele Rotaetxe, beste batzuen artean. Horiek dira euskararen eta gaztelaniaren tarteko alor desberdinak landu dituztenak eta jakitun horien lan desberdinez baliatu naiz erreferentziak hartzeko unean. Horietaz gain, mundu mailan, beste zenbait hizkuntzalarik hizkuntza fenomeno hauek ere landu zituzten, gaztelera eta ingelesaren arteko elkarreaginak hain zuzen ere. Aitu horien lanak baliagarriak izan zaizkit eta horien artean, batzuk aipatzeagatik, Werner Betz, Shana Poplack eta John M. Lipski hizkuntzalari ospetsuak topatzen ditugu. Horien lanei jarraiki, nire marko teorikoa burutu dut eta marko teoriko horrek lortutako corpus-aren sailkapena egiteko aukera eskaini dit.

Behin ikusita Nafarroako hiriburua eta bere gertuko eskualdeak zer nolako lurralde erdaldunak diren, guztiz beharrezkoa iruditzen zait gaztelaren eragin indartsu horrek sortzen dituen hizkuntza interferentzia motak aztertzea. Hortaz, egindako lan honen helburu nagusia hori izango da. Halere, nahiz eta lana burutzeko justifikapen horretan oinarritu, beste xede batzuk ere planteatuak izan dira, hurrengo puntuan bilduak azaltzen direnak.

## **1.2. Objetivos**

- Utilizando diferentes fuentes de información, crear un marco teórico para poder realizar el análisis del corpus obtenido.
- Observar cómo afecta la fuerte presencia de la lengua castellana en el euskera hablado, así como en el escrito.
- Identificar y clasificar tanto los calcos como los cambios de código recogidos.
- Sacar conclusiones propias de lo que los resultados obtenidos suponen y observar si las hipótesis anteriormente realizadas se cumplen o no.

### 1.3. Cuestiones

En lo que a este apartado se refiere, deberíamos plantearnos una de las mayores cuestiones que se produce en el ámbito de la educación: ¿cumple la escuela con sus verdaderos objetivos?

En este caso, nosotros obviamente nos ceñiremos a lo que a competencia lingüística se refiere, ya que es nuestro tema a tratar. Para ello lo que deberíamos hacer sería centrarnos principalmente en la herramienta tras la cual se rige todo el sistema educativo: el currículum escolar. En otro apartado más avanzado de este trabajo se recogen los puntos en los que el currículum hace referencia a los fenómenos lingüísticos en los que se centra especialmente el proyecto. Pero dejando a un lado la aparición de ciertos fenómenos, en nuestro contexto lo que nos deberíamos cuestionar es si realmente se consigue el aprendizaje completo de la lengua vasca o si éste es parcial. Para ello se debería hacer un profundo análisis de lo que recoge el currículum en cuanto a contenidos y objetivos a lograr en esa etapa y después contrastarlos con la realidad que se vive hoy en día en la mayoría de centros escolares.

Para poder decir que se logra un conocimiento íntegro de las dos lenguas, los niños y niñas deberían ser capaces de desenvolverse con soltura en ambos idiomas y en diferentes registros, tanto formales como informales.

Pese al importante papel que tiene la escuela a la hora de interiorizar la lengua, no se puede dejar a un lado el contexto social en el que viven. Como ya he comentado anteriormente, la importancia del contexto es primordial, ya que éste condiciona seriamente la manera de asimilar el segundo idioma (ya que en la comarca de Pamplona exceptuando algún caso aislado, para todos y todas el euskera suele ser el segundo idioma).

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Kalkoak

Lehenik eta behin, kalkoa zer den definitzen hasiko gara. Kalkoei buruz hitz egiten dugunean, hitz edo esamolde jakin batzuei buruz ari gara, beste hizkuntza batetik zuzenean mailegatuak eta itzuliak izan direnak. Etengabeko elkarreraginean bizi diren hizkuntzen artean, erabat arrunta izaten da kalkoak egotea eta hitzak ondoko hizkuntzatik elkartrukatzea. Hizkuntzak ez dira finkoak ezta aldaezinak ere, alegia, hitz batzuk galtzen dituzte eta beste hitz berri batzuk eskuratzen dituzte historian zehar. Kalkoek paper garrantzitsua jokatzen dute hizkuntza baten aldaketa prozesuan, eta ez soilik hitzei dagokionez, hizkuntzaren beste alderdi batzuk (morfologikoak, gramatikoak...) ere aldaketak jaso izan dituzte kalkoei esker.

Berez, kalkoak ez dira zerbait txarra edo negatiboa, baina egia esanda, gure gizartean ez dute batere ospe onik. Gaitzespen kutsua du “kalko” hitzak, zerbait txarra izango balitz bezala eta horregatik termino hori “kalko oker” terminoarekin elkarlotzen dugu berehala, hori akats bat izanik. Egungo euskararen terminologian, momentu oro kalkoetara jotzen dugula ezin uka daiteke eta hori aspaldiko joera bat da.

Onartu behar da hizkuntza guztietan gertatzen direla kalkoak, eta euskara ez dela salbuespen bat izango esparru horretan. Euskarak aitzinetik bereganatu egin ditu hitzak ondoko hizkuntzetatik, esate baterako, “denbora”, “gauza”, “zeru” eta “sekula” hitzak latinetik datoz. Gainera, azpimarratzekoa da mailegatutako hitz ugari guztiz ez beharrezkoak direla, euskarak hitz horiek bere hiztegian baitituelako. Horren adibide bat: latinezko *cova* hitzak, haitzulo edo leize esan nahi du latinez, eta euskarak *koba* hitza hartu zuen hizkuntza horretatik, nahiz eta jadanik leku hori izendatzeko izen bat baino gehiago eduki. Beraz, konturatzen gara, sarritan hizkuntzetan kalkoak sortzen direla baina inongo beharrik gabe, dagoeneko hizkuntza horretan hitz horiek existitzen direlako.



Euskararen kasuan, zehazki XX. mendean, korronte bat egon zen zeinean “euskara garbia” kontzeptua aldarrikatzen zuten Sabino Arana berak eta sabindar jarraitzaileek mailegatutako esapide eta hitzak baztertzen zituzten, erdarak euskara kutsatzen zuela defendatuz. Beraz, kalkoak (aspalditik txertatuak zeudenak nahiz hartu berriak zirenak) ukatzen zituzten eta euskarak neologismoak sortzeko aski baliabide (konposizioa, parasintesia, akronimia eta eratorpena) zituela aldarrikatuz, euskara eredu berri bat sortu zuten.

Gauzak horrela, neologismo ugari asmatu zituzten, denak “benetako euskal terminoak” zirenak, erdarazko eraginik gabekoak eta egia esanda, horietako asko oraindik egunero erabiliak izaten dira. Hizkuntza garbi bat nahi zuten eta esan bezala, maileguak ez zituzten onartzen. Dena den, gizarte baten eguneroko hitzak ezin dira nahi bezala moldatu eta horren adibide bat honakoa da: “autoa” edo “kotxea” terminoak egun onartuak daude, eta argi dago *coche* eta *automóvil* hitzetatik mailegatuak izan direla. Alegia, neologismo berri bat sortu nahi izan zuten: bere + ibili = beribil. Logikoa den bezala, horrelako hitzek ez zuten arrakastarik izan euskal hiztunen artean eta egun ez da inon terminologia hori erabiltzen. Baina argi dago kalkoek, horrela eratutako neologismoek ez bezala (nahiz eta Aranaren termino ugari egungo euskararen zati garrantzitsu bat izan), indar nahikoa dutela gure hizkuntza finkatzeko, egunero erabiliak izateko eta euskarari etengabe aldakuntzak eransteko.

Normalean, bi hizkuntzen arteko elkarreraginetik, ohikoena izaten da hizkuntzarik ahulena hizkuntza indartsuari hitzak mailegatzea, baina aurkako kasua ere gertatzen da. Gaztelerak, adibidez, *cococha*, *chacoli*, *chistu*, *aurresku*, *aquelarre*, *zulo* eta *lendakari* hitzak, beste batzuen artean, euskaratik hartu izan ditu eta Espainiako Errege Akademian onartuak daude. Horretaz gain, gaurko gaztelerak bost bokal besterik ez ditu eta hau gertatzen da, hain zuzen ere, iraganean euskararekin izandako elkarreraginagatik. Garai bateko latinak hamar bokal zituen baina euskararekin harremanetan bizitzearen ondorioz, pixkanaka-pixkanaka bokal batzuk galduz joan ziren. Gero, latina hizkuntza erromantzetan bilakatu zen eta horietako bat, hain zuzen ere,

gaztelania dugu. Beraz, egungo gaztelerak bost bokal ditu aspaldian euskarak latinean izandako eraginagatik.

Lehen aipatu dugun bezala, kalko hitzak ez du esan nahi kalko guztiak okerrak direnik. Kalko okerrak gertatzen ohi dira, euskara behar bezala ez menperatzeagatik edota euskara maila egokia ez izateagatik. Zalantzaren edo ez jakinaren aurrean, hizkuntza nagusira (kasu honetan gaztelania) jotzea izaten da ohikoena eta une horretan sortzen dira kalko okerrak.

Horrelako kalko anitz aurki ditzakegu euskaran, esate baterako, maiz entzundako kalko bat honako hau dugu: “gitarra ukitzea” gaztelerazko *tocar la guitarra* esamoldearen kalko oker bat da, euskaraz “gitarra jotzea” esango baikenuen. Demagun euskara maila jaso ez duen pertsona batek esamolde hori erabili nahi duela. Horrelako zalantza baten aurrean, esan bezala, beste hizkuntzara jotzea izango da arruntena eta segituan euskarara itzulpena egitea. Beste adibide garbi bat *meter ruido* esamoldean topatzen dugu. Nahiz eta bitxikeri bat iruditu, euskaran justu hitz horren antonimoa erabiltzen da esamolde hori era egokian esateko, hau da, esamolde zuzena “zarata atera” izango litzateke. Berriro ere, kontuan hartu behar da hiztunaren euskara maila zein den, eta hau nahiko baxua bada, gerta liteke kalko oker bat egitea eta “zarata sartzea” esamoldea erabiltzea, erabat okerra dena. Hori gertatzen da “kalko” hitza azaldutako adibideen tankerako kalkoekin ulertzen eta elkarlotzen delako, eta egia da, saihestu beharreko kalkoak direla horiek.

Aipaturiko “kalko okerrak” barnean sailkatuko genituzke azken hauek, baina horietaz gain, badira beste kalko mota batzuk, gure hizkuntzarako egokiak eta ezinbestekoak direnak. Hala ere, aitortu egin behar da, kalkoa edo kalkatzea neologiarako tresna gisa erabilia izan dela eta beraz, ikus daiteke kalko guztiak ez direla okerrak, hitz berriak asmatzeko baliabidea ere izan daitekeelako.

Juan Garziak, idazle eta euskalariak bere lanean (Garzia, 2005) dioen moduan, premiarik gabe sarritan jotzen dugu erdararen imitaziora eta abantaila bat izan beharrean, euskararentzako kaltea da. Euskararen sistema erdararekin

nahasten da eta modu horretan autonomia eta baliagarritasuna galtzen du. Berak aipatzen duen moduan:

*“Sistemaren osotasuna ez du kalko oker bakarrak hankaz gora botako, baina han-hemenkako erasotxo sarriek bai kolokan jarri.” Jarraitzen du: “«Ilea hartu» ere normalduko bagenu, pentsatzekoa da ez litzatekeela esapide horixe bakarrik sartuko litzazukeena erdaratik oldean: aurki, esapideen erreperitorio osoa beteko litzateke halakoz, eta euskarazko berezkoak bitxikeria huts izateraino erretiratu...” (2005:17)*

Kalkoez gain, ongi ezagutu beharreko beste bi termino aurkitzen ditugu, eta garrantzitsua da kontzeptuak ongi ezagutzea eta elkarren artean ez nahastea, honako bi dira: mailegutza eta interferentzia. Capuz-ek modu honetan definitzen du mailegutza terminoa:

*“Mailegutza terminoak, adiera hertsian, kanpoko elementu — gehienetan, lexiko— baten transferentzia oso edo erabatekoa adierazten du; eta, beraz, kanpoko adierazle bat eta adierazi bat “inportatzea” edo hartzea esan nahi du” Juan Gómez Capuz (1998: 18-43)*

Modu horretan, ikus dezakegu zein den kalkatzearen eta mailegutzaaren artean dagoen desberdintasuna. Alde batetik, kalko bat egiten dugunean mailegutza partzial bat egiten ari gara, hots, beste hizkuntzatik zati bat hartzen ari gara gure hizkuntza zati bilakatzeko (esanahia, hain zuzen ere). Mailegutza ordea, ez da partziala, osoa baizik. Hitza bere osotasunean mailegu bezala hartzen da eta beraz, esan dezakegu inportazio bati buruz hitz egiten ari garela. Kalkoen kasuan berriz, ordezen bat burutzen ari gara. Euskararen kasuan, mailegutza adibide batzuk aurki ditzakegu, hala nola, “semaforo”, “xelebre”, “testu”, “bikini”, “duda” edota “telefono” hitzetan, batzuk aipatzeagatik.

Interferentziaz mintzo garenean, kanpoko elementu bat hartzeaz eta hizkuntza hartzailea berregituratzeaz ari gara. Kanpo elementu horiek hizkuntza

hartzailera transferitzen dira, baina horretaz gain, bi hizkuntzetako hainbat elementu identifikatu egiten dira eta hizkuntza hartzailearen azpisistema batzuk berregituratu ere bai. Kalkoekin gertatzen zen bezalaxe, interferentziak neutroak dira. Hala ere, elebidunen kasuetan, hizkuntzaren okerrekin erlazionatzen ohi dira.

Askotan hiru termino hauek nahasten dira eta hizkuntzen arteko elkartrukeetan askotan terminologia eta kontzeptualtasun ez egokia erabiltzen dugu. Azpimarratu beharra dago, UZEI-k, terminologia eta lexikografiako zentroak, modu honetan definitzen dituela kalkoak, mailegutzairen barnean sailkatuak:

*“Maileguen artean aipatzekoak dira, era berean, kalkoak. Kalkoak mailegu bereziak dira: hizkuntza batek beste hizkuntza bateko hitza edo esamoldea itzuliz sortzen dituen unitate linguistikoak dira. Gisa honetakoak dira, esaterako, segurtasun-indarrak, argi berdea eman, gastuak estali, etab.” UZEI (2002:50)*

Dena den, sailkapena ez dago batere garbi, nahasketa kontzeptual handia sortzen delako. Horregatik aditu batzuek kalkoak eta maileguak modu honetan bereizten dituzte: alde batetik mailegu integralak (atzerriko elementua bere osotasunean hartzen dutenak) eta bestetik, mailegu partzialak (kalko guztiak talde honen barnean sartzen dituzte, eta multzo honetan eredu morfematikoa edo semantikoa mailegatuta hartzen da).

Nahiz eta UZEI-k kalkoak maileguen barnean sartu, esan beharra dago hizkuntza maileguez aldaketarik ia ez dituztela jasaten, ez alde fonologikoan ezta gramatikalean ere. Normalean bakarrik aldaketaren bat izaten dute jatorrizko hitzaren forma fonologikoan hizkuntza berriaren fonologiari egokitu ahal izateko. Kasu hori adibidez “surfa” edo “elektrizitate” hitzetan oso argi ikus daiteke, nola moldatuak izan diren euskararen fonologia zein gramatika eta ortografiara.

Kontrako kasu bat, ordea, “saskibaloia” hitzean topatzen dugu, ingeleseko *basketball* hitzetik zuzenean itzulia eta aldatuta izan dena, hots, kalkatua azken finean. Hau da, maileguan elementu lexiko baten transferentzia integral bat sortzen den bitartean, kalkoetan ordea, itzulpen edo morfema ordezkapen bat egoten da. Kalkoen funtsezko mekanismoa honetan datza: hizkuntza jasotzailean, atzerriko ereduaren artikulazio estrukturala eta zentzu semantikoa mantentzen dituen elementua erreproduzitzea, hizkuntza horretan jadanik existitzen diren unitatez baliatuz.

Kalkoak sailkatzen baditugu, ikus genezake era desberdineko kalkoak daudela, hona hemen kalko mota desberdinak:

- Alde batetik, kalko estruktural edo kalko lexikoak deiturikoak aurkitzen ditugu eta hauek hizkuntza arrotzaren estruktura imitatzen dute. Hau da, kanpoko hitzaren alderdi immateriala, hots, bere barne egitura kopiatzen dute. Werner Betz (1949) filologo alemaniarrek planteatutako sailkapenaren arabera hiru kalko lexiko desberdin aurki ditzakegu:

- *Hitzez hitzeko kalkoa*. “Ereduaren itzulpen zehatza, atalez atal egindakoa” modu horretan definitzen du Betz-ek hitzez hitzeko kalkoa. Ingelesetik hartutako hitz gehienak, mota honetako kalkoak izaten dira. Horren adibideak dira; autozerbitzua, (*self-service*) eskubaloia, (*handball*) ukipen lente, (*contact lenses*) mendiko bizikleta, (*mountain-bike*) berotegi efektua, (*greenhouse effect*) estatu kolpea, (*coup d'État*) edo argi urte (*light year*) terminoak.

- *Kalko hurbildua*. Ez da itzulpen zehatz-mehatz bat egiten eta kasu honetan itzultzerakoan kalkoak askatasun handiagoa du. Gertuko kalko bat ematen da, honen zati bat zuzenean itzultzen delako baina beste bat ordea, hizkuntzaren arabera era libre batean moldatua izaten da. Adibidez: “atzerako kontaketa” esamoldea gazteleratik hartutako kalko bat da eta gaztelerak aldi berean, ingelesetik hartutako kalko hurbildua. Ingelesean *count-*

*down* esaten da, baina horren itzulpen zehatzak “beherako kontaketa” edo “*cuenta atrás*” izango lirateke. Beste adibide bat “*money laundering*” esamoldearekin gertatzen da. Euskaran eta gaztelera “diru zuritzea” eta “*blanqueo de dinero*” esamoldeak erabiltzen ditugu hurrenez hurren. Baina itzulpen zehatza egingo bagenu, “diru garbiketa” esanahia duela ikusiko genuke eta modu horretan, bigarren elementua jatorrizko terminotik modu askeago batean eraldatzen da.

Kalko hauetan ikusi dugun bezala, gure hizkuntzaren parte diren hitzak erabiltzen dira, baina neologismo berriak asmatu gabe. Hala ere, bi elementu edo gehiago elkartzekoan esanahi berri bat sortzen dugu. Aurreko adibideko hitzek, “dirua” substantiboa eta “zuritu” aditza, euskaran jadanik baziren. Elkartzekoan aldiz, “dirua zuritzea” esamolde berria lortzen dugu, gure hizkuntzan kontzeptu edo esanahi hori adierazteko esamolderik ez zegoen eta gure hiztegiko hitzak erabiliz sortua izan da.

- *Kalko askea edo kontzeptuala*. Atzerriko hitzaren kontzeptua kalkatzen da, baina bere forma ez da gordetzen. Kontzeptu horren baliokidea den beste bat bilatzen da, esate baterako; *hardware* terminoaren baliokide kontzeptuala “euskarri fisiko” izango litzateke.

- Bestetik kalko semantikoak daude, hauek esanahia kopiatzen dutenak eta arazo gehienak sortarazten dituztenak dira. Kalko hauetan hitza zuzenean hizkuntz arrotzetik beste hizkuntzara itzultzen da. Askotan esanahiak nahasten dira edo esanahi okerrak esleitzen zaizkie. Hobe ulertu ahal izateko, ikus dezagun adibide batekin: gaztelera *hombre* hitzak esanahi desberdinak ditu. Alde batetik, zentzu indibidualean gizon bati egin liezaioke erreferentzia eta bestetik orokorragoa den beste zentzu batean, gizarte osoari, gizaki gisa moduan.

Beraz, hura erabiltzerakoan, demagun; *el hombre de Neandertal* esaterakoan, euskarara itzultzerakoan “Neandertalgo gizona” esaten badugu, kalko semantiko bat egiten egongo ginateke. Kasu honetan erdarazko hitz baten esanahia kopiatu dugu eta zuzenean hitz hori euskarara itzuli dugu, kalko oker bat eginez. Ikusten den bezala, kalko semantikoetan ez dira hitz berririk sortzen, mailegu semantiko bat gertatzen delako eta esanahia bakarrik hartzen delako mailegu bezala. Esanahi hori prestatuta hartzen da eta beste hizkuntzan existitzen den hitz bati aplikatzen zaio, gure adibidean, “gizona” hitzari. Beraz, kalko semantikoetan ez dira hitz konposatu berririk sortzen, baizik eta aurrez hizkuntza horretan existitzen zen hitz bati esanahi berri bat eranstean zaio.

Kalko semantikoen adibide ugari aurki ditzakegu, asko erabiltzen baitira. Adibidez, ingelesetik eratorri den termino bat, *mouse*, zuzenean itzultzen badugu “sagu” esan nahi du. Termino hori informatikan erabiltzen da eta guk zuzenean euskarara kalkatu dugu, hizkuntza askok egin duten bezala. Baina ikusten denez, “ordenagailuko *mouse-a*” ez da esaten, hitz horren ordezkoa edo baliokidea dagoeneko gure hiztegian badagoelako. Beraz, “sagu” hitzari, hau da, animalia bat identifikatzeko erabiltzen genuen hitzari esanahi berri bat gehitu diogu, beste hizkuntza batetik zuzenean kalkatua izan dena.

- Aurki ditzakegun beste kalko mota batzuk, kalko fonetikoak dira. Hauetan jatorrizko hizkuntzaren ahoskatzeko era kalkatua izaten dela esan genezake. Esate baterako, *pizza* edo *pizzeria* berezko ahoskapekin, hau da, italieraz hitz egiten ari bagina bezala esaten dugunean gertatzen da. Horrek esan nahi du pi[ts]a atzerriko fonema erabiltzen ari garela hitz hori irakurtzerakoan eta imitazio horri kalko fonetiko deritzogu.
- Ahaztu ezin ditugun beste kalko batzuk fraseologikoak dira. Hauek dira beste hizkuntzatik hartutako esaldi eta esamoldeak zuzenean kopiatzerakoan sortzen direnak. Hizkuntza jasotzailean berez, beste era

bateko espresioak erabiltzen dira (jatorrizkoak edo berezkoak direnak) eta kalkatutako esaldi berria guztiz okerra izango da. Jakina den bezala, hizkuntza bakoitzak berezko esamoldeak ditu eta beraz, hauen hitzez hitzezko itzulpenak ezin dira egin. Hala eta guztiz ere, kasu askotan hizkuntzen arteko paralelismoak gertatzen dira eta hainbat kalko fraseologiko onartuak daude, hala nola, “soldatak izoztu” edo “norbait poltsikoan izan”. Kalko hauek gehien bat hizkuntza hartzaileko hitzak konbinatuz eta eredu-hizkuntza imitatuz sortzen dira. Nahiz eta batzuk onartuak izan, beste asko kalko okerrak dira eta saihestu beharrekoak. Hurrengo taulan ikus daitezke kalko fraseologiko oker batzuen adibideak:

### 1. Taula. Euskarazko kalko fraseologiko okerrak

JATORRIZKO ESALDIA	KALKOA	ESALDI ZUZENA
<i>No bajar la guardia</i>	Guardia ez jaitsi	Erne egon
<i>Coger la salida</i>	Irteera hartu	Irten
<i>Levantat el castigo</i>	Zigorra altxatu	Zigorra kendu
<i>Estar en forma</i>	Forman egon	Sasoian egon
<i>Se lo dije personalmente</i>	Pertsonalki esan nion	Nik neuk esan nion
<i>Persona culta</i>	Pertsona kultua	Pertsona ikasia, pertsona jakintsua

Bai kalko zein mailegu linguistiko, ez dira nolanañi baztertu behar. Hizkuntzaren atal garrantzitsua osatzen dute eta hizkuntzalaritza teknikoan neologismo berriak sortzeko ohiko baliabideak izaten dira. Jakintza eremu askotan (informatika, zientzia, filosofia, erlijio, kirola, e.a.) terminologia espezifikoa erabiltzen da eta terminologia hauek, nazioarteko izaera konbentzionala izan ohi dute. Beraz, erabat baliagarriak eta ezinbestekoak direla esan genezake, bai euskarari eta bai gainontzeko hizkuntzetan ere. Gainera, aitzinetik neologismo mekanismo eraginkor moduan erabiliak izan dira. Dena den, nahiz eta kalkoak edo maileguak erabiltzea zilegi izan, ez da



ahaztekoa gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituela kalkoa edo mailegua onartua izateko.

Azpimarratzekoa da, mailegu linguistiko edo kalko bat hizkuntza batera eransten zaiola hizkuntza horretan hitz horren baliokidea edo esanahi bera duen hitzik existitzen ez delako, eta beraz beharrezkoa delako. Eratorpena bi modutara egin daiteke; alde batetik hitza zuzenean atzerriko hizkuntzatik mailegatuta ekarriz, hitz berri hori gure hizkuntzara egokituz edo gure hizkuntzaren hitz bati beste esanahi berri bat gehituz. Orduan ikusten dugu, kalkoak edo maileguak esanahi bat gure hizkuntzan ez dagoenean erabili behar ditugula eta esanahia dagoeneko gure hizkuntzan bada, kalko hori soberan egongo litzateke, alegia, kalko oker batez arituko ginateke.

Ez dugu nahastu behar jendeak erabiltzen duen hizkera eta kalko okerrak izan daitezkeenak. Egun beste hizkuntzetako hitzak erabiltzea modan jarri dela esan dezakegu, horrela batzuen arabera, espresioak beste puntu diferente edo modernoagoa hartzen baitu. Hori egitea oker bat da, eta beste hizkuntzetako terminologia erabiltzea ongi dago, baina beharrezkoa denean, adibidez: *handicap*, (zailtasuna) *ranking*, (sailkapena) *spot*, (iragarkia) *meeting*, (bilera) *staff*, (zuzendaritza taldea) *confort*, (erosotasuna) *debut*, (estreinaldi) *footing* (lasterka egin) edota *show* (ikuskizuna) hitzak horren adibide batzuk dira.

Batzuk denborarekin gero eta erabiliagoak izaten dira eta gizarteak emandako erabilpen horri esker hizkuntzan txertatuak bukatzen dute, nahiz eta ikusi dugun bezalaxe, gure hizkuntzan haien baliokideak diren hitzak eduki. Nahiz eta bitxiak iruditu lehendabiziko unean, hizkuntza bateko hiztunak sarritan erabiltzearen ondorioz gizartean arrakasta lortzen badute, kalko horiek normalizatuko dituzte eta hizkuntzaren parte berri bat izatera pasako dira. Onartze edo baztertze horrekin erabat loturik daude Juan Garzia Garmendiak bere “Kalko okerrak” lanean jasotzen dituen hitzak:

*“Egia osoa esateko, besterik gabe kalko ote den ere (oker zein zuzena) eztabaidagai izan daiteke kasu ez gutxitan. Auzi hori, bestetik,*

*hizkuntzaren zuzentasunari eta egokitasunari doakiona da, eta horren atal bat baino ez da kalkoena: erabilera –kanpoko eraginez nahiz barrukoz– ustelak zein diren nola erabakitzen den. Besteak beste, historikoa (diakronikoa) da kontua, eta, beraz, aldakorra: noizbait kalko nabarmena zena, denborarekin, gerta daiteke erabat integratzea hizkuntzan; «naturaldu» dela esan ohi da orduan.» Juan Garzia (2005:16)*

## **2.2. Kode aldaketa**

Etengabeko ukipenean egoten diren hizkuntzen artean, zuzeneko harremanei esker, beste fenomeno desberdin bat aurkitzen dugu. Egungo lurralde gehienetan, arrazoi desberdinengatik (politiko, kultural, ekonomiko, e.a.) eleaniztasun egoerak aurki ditzakegu. Egoera hauetan hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin ukipenean egoten dira eta ukipen horri esker, hizkuntza fenomeno desberdinak agertzen zaizkigu (hizkuntza interferentziak, elebitasuna, diglosia edo jarraian ikusiko duguna; kode aldaketa)

Kode aldaketa, *code switching* ere deiturikoa, hizkuntza termino bat da eta esaldi edo elkarrizketa batean aldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzean datza. Baina ez da soilik hizkuntzetara mugatzen, hitzak dioen bezala, edozein kodigoren txandaketa hartzen du bere baitan, eta hauek hizkuntza dialektoak ere izan daitezke. Txandaketa fenomeno arrunta eta ohikoa izaten da elebidunak diren hiztunen artean.

Hasieran, fenomeno hau ez zegoen ongi ikusita, hizkuntzaren ezagutza eskasarekin erlazionatzen baitzen. XX. mendeko 70. hamarkadan, kode aldaketa ikertzen hasten da eta aurreko ikuspuntu horrek beste itxura positiboagoa hartzen doa. Jarrera aldatze hori, Gumperz (1972) ikerlariari esker hasi zen, berak komunikatzeko estrategia bat zela frogatu zuelako. Egun, kode aldaketa hiztun elebidunek sortutako ekoizpen normala eta naturala dela onartua dago. Hasierako pentsaera erabat gaindituta dago, bi hizkuntzetan maila altua duten elebidunek kode aldaketa erabiltzen baitute.

Elkarrekintzan txandakatzen diren hizkuntzen artean bi termino bereizten ditugu; alde batetik oinarrizko hizkuntza (*matrix language*) eta bestetik, txandakatutako hizkuntza (*embedded language*). Orokorrean, kode aldaketak hizkuntza biren sintaxiak esaldi batean bat datozenean gertatzen ohi dira.

Egun, kode aldaketa gure bizitzaren esparru desberdin askotan aurki ditzakegu; literaturan, iragarkietan, musikan, filmetan, e.a. Beraz, gure gizarteko eguneroko bizitzarekin harreman estua duen fenomeno batez ari gara, nahiz eta ukipen hizkuntzak topa ditzakegun lurraldeetan maila handiagoan azaleratu.

Kode aldaketak sailkatzerakoan, Lipski (1985) hizkuntzalari amerikarrak egindako sailkapena erabiliko dugu:

- *I taldea: substantiboa tartekatzea.* Oinarrizko kasua da eta bertan hitzunik substantibo bakarra txertatzen du, beste hizkuntzatik hartutakoa. Adibidez: “nire *perro* zaunkaka hasi da”. Eredu honetan hitzunik euskara erabiltzen du hizkuntza nagusi bezala, baina gaztelerara jotzen du bertatik *perro* izena hartzeko.
- *II taldea: esaldi tarteko kode aldaketa.* Talde hau bigarren hizkuntza denbora desberdin batean bereganatu duten elebidunen artean oso ohikoa izaten da. Hizkuntza batean hasteko eta bestean bukatzeko joera izaten dute. Ikus dezagun adibide batekin: “ gaur Osasunak bere partida irabaziko du. *Me juego lo que quieras a que gana*”.
- *III taldea: esaldi barneko kode aldaketa.* Hirugarren talde hau konplexuena dela esan dezakegu. Horrelako kode aldaketak erakusten digutena honakoa da (Rotaetxe, 1999:59); hitzuna guztiz elebiduna dela eta hizkuntza bakoitzaren gramatika oso ongi ezagutzen duela. Lipski-k esaldi barneko kode aldaketak egiten zituzten hitzunek bat-bateko hizkera menperatzen zutela frogatu zuen. III. talde honen adibide bat: “atzo joan nintzen *al monte*”

Agian Lipski-k (1985) egindako sailkapenari beste talde bat gehitu beharko genioke. Lehenengoaren antzekoa izango litzatekeena, baina substantiboetara murriztu gabe, hots, gauza bera baina esapideak, makulu-

hitzak, harridurak, interjekzioak, e.a. barnean sartuz. Adibidez: “*ay dios mió!* Ze nolako kolpea hartu duzun!”. Talde honen izena etiketa izango litzateke, ingeleseko *tag* terminotik itzulita. Shana Poplack, (1980) aipaturiko kode aldaketa hauen eta elebitasun mailaren arteko elkarrekintza bat zehazten du. Berarentzat, bi hizkuntzetan maila ona duten hiztunek III. taldeko kode aldaketa erabiltzen dute gehien. Aldiz, aipaturiko etiketa taldea edo beste bi taldeak erabiltzen dituzten hiztunek, normalean hizkuntza maila apalagoa dute. Myers-Scotton-en (1993) ikuspegitik, ordea, II. taldeko kode aldaketa erabili ahal izateko hizkuntzen ezagupen handiago bat izatea beharrezkoa da, bi hizkuntzetan gramatikalki zuzenak diren egiturak sortu ahal izateko.

Aipatzekoa da, aztergai izango ditudan hurrek, logikoa den bezala, kode aldaketak egingo dituztela. Dena den, hauek hizkuntza maila desberdinak izango dituzte, hau da, gehienek gaztelera maila altuagoa edukiko dute euskara maila baino. Hori dela eta, ume hauen kode aldaketak ez dira gertatuko hizkuntza biak erabat menperatzen dituztelako, baizik eta kontrako kasuarengatik, hizkuntza batean bestean baino maila apalagoa edukiko dutelako.

Azpiratu nahiko nuke kode aldaketa gehienak, euskararen kasuan, gazteleratik euskararako transferentziak izaten ohi direla. Transferitutako elementu horietatik, ohikoenak (Ibarra 2011: 281) honako hauek ditugu: *pues, esto, igual, ya, por ejemplo, bueno, sin más, es que, vale, o sea que, qué va, claro, ya esta, así que, aparte, según, igual, seguro, porque, yo qué sé*, eta *no sé qué* horietariko batzuk aipatzeagatik. Nahiz eta hauek gazteen hizkeratik ateratakoak izan, esan dezaket hurrek ere erabiliko dituztela horrelako esapideak edo hitz makuluak.

Adituek kode aldaketak hizkuntza maileguetatik desberdintzeko ahaleginak egin dituzte. Era berean, maileguak hizkuntzaren lexikoarekin elkarlotu dituzte eta kode aldaketak, ordea, sintaxi maila edo ahoskaperaren eraikuntza mailarekin. Dena den, hizketaldi batean hizkuntza desberdinak azaltzeagatik, ez du esan nahi kode aldaketa egon behar denik. Ikusi dugun

bezala, kode aldaketak bi maila desberdinetan eragiten du; alde batetik maila lexikoan eta bestetik, maila gramatikalean.

Beraz, hizkuntza elebarkarreko hitzaldi batean termino arrotz bat topatzen dugunean, aurretik definituriko hizkuntza mailegu batez arituko ginateke. Gerta daiteke hirugarren fenomeno bat aurkitzea; kode nahasketa (*code mixing*). Hau hiztunaren hizkuntza urritasuna dela eta sortzen da, modu inkontziente eta oharkabe batean. Hitzaldi berean bi kode desberdin nahastuz sortzen da, baina oinarritzko hizkuntza bat hautematea ezinezkoa da.

Kode aldaketa fenomenoaren ezaugarri nagusiak hurrengo zerrendan bilduak agertzen dira:

- Maila lexiko eta gramatikalean eragiten du.
- Ukipenean dauden hizkuntzen estruktura morfosintaktikoa ez du aldatzen.
- Esaldi batean hizkuntza biren elementuen ordena bat etortzen denean ohikoa izaten da kode aldaketa erabiltzea. Aldiz, hizkuntzak tipologikoki desberdinak badira, aldaketa zailagoa izaten da, baina ez ezinezkoa.
- Morfemen ordena normalean oinarritzko hizkuntzak ezartzen du
- Kodigoen arteko trantsizioa modu arin eta naturalean egin ohi da, hots, etenik gabe, erritmoa eta entonazioa mantenduz.

Kode aldaketa hiztunen talde soziolinguistikoarengatik baldintzatuta aurkitzen da eta aldi berean, komunikazio egoeraren izaera formal edo informalarengatik. Modu berean, ez dago arrazoi bakarra kode aldaketa erabiltzeko, eta egoeraren arabera kode aldaketa bultzatzen duten faktoreak erabat desberdinak izan daitezke.

### **2.3. Curriculumarekiko lotura**

Curriculumaren hezkuntza sistema definitzen duen tresna dugu. Bertan eskoletan jorratu beharreko oinarritzko gaitasunak, edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak jasotzen dira. Curriculumean hizkuntzen trataerari atentzio zabala eskaintzen zaie, ikas-prozesuaren funtsezko atal bat osatzen baitute.

Oinarrizko gaitasunetatik hasita, lehenengoa da landutako gaiarekin harreman zuzena duena, hizkuntzari erreferentzia egiten dio eta. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasunak ahozko hitzaldiari zein idatzizko hitzaldiari egiten die aipamen. Bertan hitzezko interakzio motak ezagutu behar dituztela eta testu mota desberdinak eratzeko gaitasuna eduki behar dutela jasotzen da.

Hizkuntza bidezko komunikazioko ekintzei (elkarrizketari, irakurketari, idazketari eta abarri) helburu batzuk aplikatzeko gaitasuna ere izendatzen du oinarrizko gaitasun honek. Azkenean, gaitasun honek adierazi nahi duena honakoa da: “labur esateko, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran hizkuntza gaitasuna garatzearen ondorioz, ahozko eta idatzizko hizkuntza testuinguru desberdinetan menperatzen dira eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat funtzionalki erabiltzen da.” (Nafar Gobernuak, 2007:19) Elebitasunari buruz Curriculumak dioena:

*“Nafarroako curriculumean hizkuntza desberdinak egoteak beharrezkoago egiten du haien arteko lan koordinatua eta integratua egitea, zeren eta hizkuntzak ez baitira era independentean garatzen gizabanakoan. Gaitasun linguistikoak aukera ematen du hizkuntzen arteko konparazioa eta alderaketa egiteko eta haien arteko eragina gerta dadin. Hizkuntza baten ezagutza hobetzeak hobekuntzak dakarzkie besteei; hizkuntza bakoitzean ikasten denak kontzientzia metalinguistikoa handitzen du, eta ikaslearen garapen kognitiboa susta dezake. Ikasketa batzuk (ezagutzak, prozedurak, estrategiak) hizkuntza batean ikasi eta besteetara transferitzen ahal dira. Transferentzia horrek curriculum esparru bat eta hura sustatuko duen irakaslan bat behar ditu” (Nafar Gobernuak, 2007:11-12)*

Azken paragrafo hau alde batera utziz, curriculumean ez zaie erreferentzia zuzenik egiten aurretik aipaturiko hizkuntza fenomenoari, ez kalkoei ezta kode aldaketei ere. Dena den, ikus dezagun hizkuntza mailan zer eskatzen zaien D ereduko ikasleei. Behatuak izango diren haurrak 3. mailakoak

izango direnez, bigarren zikloari buruz curriculumean jasotzen dena aztertuko dugu:

Helburuei dagokionez, bi helburu nabarmenduko genituzke. Alde batetik; *“Gauzak ahoz adieraztea, hitz egitea eta hizketan jardutea, eta gauzak idatziz adieraztea, diskurtsoak eta testuak eginez esaldi erraz eta egokiek, eguneroko bizitzaren testuinguru desberdinetan.”* Hau hizkuntza gaitasunarekin elkarlotua egongo litzatekeena da eta hurrengoa, aldiz, *“Europako eleaniztasunaren errealitatea baloratzea, eta Espainiakoa, eta euskararen aldaera linguistikoak, kultur aberastasuna direlako.”* haiek bizi behar duten elebitasun egoerarekin harremana izango lukeena.

Curriculumaren barnean, hitz egitearekin erlazionatuak dauden edukiak aurkitzen ditugu, esate baterako:

- Parte hartzea eta laguntzea ohiko komunikazio egoeretan (informazioak, bizikidetasuna arautzen duten hizketaldiak, eztabaidak edo jarraibideak), komunikazio egoerari egokituz eta baliabide linguistiko egokiak erabiliz (elementu lexikoak, gramatikalak, fonologikoak...).
- Ikasteko ahozko testuak sortzea, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak).

Bestetik, hizkuntzaren ezagupenarekin erlazioa duten edukien artean honakoa azpimarratuko genuke:

- Gizarteko eta eskolako testuinguruan dagoen aniztasun linguistikoaren kontzientzia positiboa: eskolako hizkuntzak.

Aipatutako edukiez gain, erreferentzia ugari egiten zaizkie hurrengo edukiei: eremu semantikoa eta hiztegia garatzea, erregistro egokia erabiltzea, esaldi motak bereiztea, hauen elementu desberdinak identifikatzea, ahozko adierazpena lantzea, egitura sintaktiko desberdinak barneratzea, puntuazio ikurrak duten garrantziaz jabetzea, aditz denborak menperatzea, e.a.

Curriculumak dioena laburtuz, azken finean haurrek komunikatzeko gaitasuna garatu behar dute, idatzizkoa zein ahozkoa. Horretarako hizkuntzaren alderdi desberdinak (hiztegia, gramatika, eitura, e.a.) behar bezala ezagutu eta kontrolatu behar dituzte. Mekanismo horiek elkarlotuz, zentzudunak eta egokiak izango diren esaldiak eratzeko gaitasuna eskuratuko dute. Horretaz gain, hitzaldia testuinguru sozial zein kulturei egokitua egon beharko da.

Gainontzeko eduki eta helburuak ez ditugu aztertuko ez direlako gure ikerketa hizkuntzekin (euskara eta gaztelera) edota gure behaketa ereduarekin (D eredu) bat etortzen.



### 3. ESKOLA ETA IKASGELAREN DESKRIBAPENAK

#### 3.1. Eskolaren deskribapena

Egindako ikerketak Barañaingo (Iruñea ondoan kokatuta dagoen herri batean) D ereduko Alaitz ikastetxean burutu izan ditut. Bertan egin ditut, hain zuzen ere, nire eskola praktikak eskola horretan aurrera eraman ditudalako eta beraz, nire ikasgela aurretik ezaguna nuelako.

Alaitz Ikastetxe Publikoa eskola publiko, euskaldun, laiko, anitza eta demokratiko bezala azaltzen da. Eskolak bertan ikasi nahi duten pertsona guztiak onartuko ditu, elkarrekin lan egiten eta beharrezkoak diren baliabide guztiak erabiliz, gizartean ematen diren desberdintasunak (ekonomikoak, kulturalak, e.a.) ikasleen artean berriz gertatu ez daitezzen.

Eskola euskalduna izanik, Hezkuntza komunitateko kide guztiek Euskara ezagutzeko eta euren harremanetan erabiltzeko eskubidea daukate, Euskal kulturaren ezaugarriak ezagutu, baloratu eta hedatuz. Eskola publikoa izanik, ez-konfesionaltzat jotzen da, ezarritako inolako erlijioerikiko konpromisorik gabekoa, ikasleek eta euren familiek bizitza pribatuan zentzu honekiko har ditzaketen aukera guztiak errespetatuz. Ikastetxea anitza eta demokratikoa da, non hezkuntza prozesuan inplikaturik dauden sektore guztiek parte hartzen duten, euren eskumenen arabera, guztien komuneke jarduerak bultzatuz, kide guztien pentsaera era jokaera ezberdinak kontuan hartuz.

Egun, 2013-2014 ikasturtean, 316 ikasle eta euren familiak, 28 irakasle eta zerbitzutako langile ugari (atezainak, administraria, jantokiko eta eskolaz kanpoko monitoreak) sartuta daude guztiona den hezkuntza proiektu honen garapenean, euskara eta euskal kultura ikasi eta hedatzeko konpromisoarekin.

Murrizketak direla eta, nabaria da ikasle kopurua zenbait gelatan igo egin dela, adibidez, lehenengo mailan klase bakarra dago 26 ikasleekin. 3. eta 4. mailatan ere 23 ikasle inguruko klaseak topatzen ditugu eta ikasle bakoitzari behar duen atentzio indibidualizatua eskaintzea gero eta lan zailagoa bilakatzen ari da. Nire klasean aldiz, alderdi hori ez da nabaritu 16 ikasle besterik ez nituelako, klaseak emateko kopuru guztiz aproposa.

### 3.2. Ikasgelaren deskribapena

Lehenik eta behin aztergai izan dudana ikasgela definitzea gustatuko litzaidake. Aurreko puntuan deskribatutako ikastetxe publikoan egindako behaketa izan da, hain zuzen ere, 3. maila batean. Hirugarren mailako klase bat den heinean, 8 eta 9 urte bitarteko ikaslez osaturik dago eta beraien artean errepikatzaile bakarra dago, urte bat zaharragoa dena. Kasu honetan 16 ikasleez osaturiko gela bat da eta 16 horietatik 10 ikasle neska dira eta gainontzeko 6-ak mutilak. Barañainen, hots, Iruñerrian kokatuta dagoen eskola bat denez, eta nahiz eta azken urteotan guraso euskaldunen kopurua hazi den, oraindik gurasoen gehiengoa erdalduna izaten jarraitzen du.

Kasu honetan ikasgelako 16 ikasleetatik 9 haurren gurasoek ez zekiten euskaraz. Beste 7 gurasoak aldiz euskaldunak ziren edo euskararen ezagupen maila bat zuten (nahiz eta hau kasu batzuetan baxua izan). 1. taulan lehen aipaturiko 7 ikasle horietatik guraso euskalduna nor zen (hau da, aita/ama edo biak) eta etxean zuten euskararen erabilera ikus daiteke.

**2.Taula.** Guraso euskaldunen banaketa.

Ikaslea	NOR DA?	ETXEAN NORMALEAN EUSKARAZ?
I.A.	Ama	Bai
A.L.	Aita	Batzuetan
H.E.	Biak	Bai
J.N.	Aita	Bai

I.T.	Ama	Batzuetan
I.G.	Ama (pixka bat badaki)	Ez
L.H.	Ama (pixka bat badaki)	Ez

Lehenengo begiradan datuek nahiko itxaropentsuak ziruditen, izan ere ikasgela erdiaren gurasoak euskaldunak baitziren. Ikasleek etxean zuten euskararen erabilera aztertuz, 7 ikasleetatik 3 ikaslek hitz egiten zuten euskaraz normalean. Ikasle bakarra zegoen bi gurasoak euskaldunak zituenak eta honen kasuan euskaldun zaharrak ziren. Ikasle horrek bai eskolan eta baita etxean ere euskaraz hitz egiten zuen, horregatik beste ikasleekin alderatuz maila desberdina nabari zitzaion.


Guraso gehienen kasuan bietariko bakarrak zekien euskaraz, beraz horrek gehienetan asko baldintzatzen zuen etxean edo familian elkarrekin hitz egiteko zuten modua.

Gogoratu beharra dago ikasle hauek Iruñerrian ikasten zutela eta bertan jende gehienak erdaraz hitz egiten du. Kanean zein saltokietan erdara da nagusi, beraz batzuetan zaila izaten da euskaraz jardutea. Ekitaldi, jarduera zein komunikabideek ere ez dute asko laguntzen, izan ere hauetan gehienean erabiltzen den hizkuntza erdara baita. Argi ikus daiteke egunero gaztelera nagusi den inguru batean euskara behar bezala menperatzea zaila dela. Ikasle horiek, esate baterako, ikastetxean euskara entzun eta mintzo ziren baina behin ikastetxetik aterata, erdara zen nagusi.

Iruñerrian bizi den egoera ulertzeko egindako azterketa eta ikerketei begirada bat botatzea da hoberena. Datuei erreparatuz (Eusko Jaurlaritza, 2011) azken 20 urte hauetan euskararen erabilpenean ia aldaketarik ez dela egon ikus daiteke. Hau da, egungo datuak 1994ko datuekin alderatuz, Nafarroako egoera azken urteetan ez dela aldatu esan genezake.

Hurrengo grafikoari erreparatuta Nafarroa erdiko zonaldean, zonalde mistoa deiturikoa, hurrek ama hizkuntza bezala erdara dutela ikus daiteke. Datu hauek aztertuz, ikasgelaren ideia sendoago bat izatea da helburu.


**1.grafikoa.** Ama hizkuntza Nafarroako erdialdeko zonaldean (Eusko Jaurlaritza, 2011)



Iruñeko datuak erdialdeko zonaldeko datuekin alderatuz, inolako aldakuntzarik ez dagoela ikus daiteke. Iruñeko biztanleen %3,4k euskara dute ama hizkuntza bezala eta %2,5-k euskara gaztelerekin batera. Gainontzekoek, hau da, biztanleriaren %94,1-ek gaztelera dute ama hizkuntza. Horrek esan nahi du Iruñeko 10 biztanleetatik 9rentzat gaztelera (edo euskara ez den beste hizkuntza bat) izan dela haien ama hizkuntza. Bestaldetik, aipatzekoa da, euskaldun zahar horietatik gehiengoak 65 urte baino gehiago dituztela, eta adina jaitsi ahala, euskaldun zaharren kopurua era progresiboan jaisten doa. Jarraipen hori gazteekin amaitzen da, izan ere 16- 24 urte bitarteko pertsonetan igoera nabarmen bat gertatzen delako.

Datuekin jarraituz, hurrengo bi grafikoetan ikus daiteke zein den Iruñerriko elebiduntasunaren egoera. Nortzuk diren euskaldun zaharrak eta nortzuk eskuratu duten euskara bigarren hizkuntza bezala.

**2. grafikoa.** Iruñerriko elebidunak (Eusko Jaurlaritza, 2011)




Elebidun pasibotzat hartzen dugu bere hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ulertzeko gai dena, baina, hizkuntza horretan mintzatzeko gai ez dena. Esate baterako, hau izan daiteke bere maila nahiko baxua delako edo hitz gutxi menperatzen dituelako.

2. grafikoari begiratzuz ikus daiteke Iruñerrian bizi diren 10 biztanletik 2 elebidunak direla, hori bai, bata pasiboa. Orduan antzeman dezakegu soilik %9,8-a gai dela euskaraz hitz egiteko, ehuneko nahiko baxua zonalde mistoan egoteko.

3. grafikoak elebidun kopuru horretatik zeintzuk diren euskaldun zaharrak eta zeintzuk euskaldun berriak deskribatzen du. Ikus daitekeen moduan, Nafarroako zonalde honetako 10 elebidunetatik 6 euskaldun berriak dira, hau da, hauek ez dute euskara ama hizkuntza bezala izan. Erdara izan zen beraien lehendabiziko hizkuntza eta geroxeago ikasi zuten euskara, etxetik kanpo; euskaltegietan, eskoletan, e.a.

Gainontzeko 4 pertsonetatik 2 euskaldun zaharrak dira, hots, beraien ama hizkuntza euskara da, etxean txikitatik ikasia. Beste biak jatorrizko elebidunak dira, hauek ama hizkuntza bezala bi hizkuntzak izan dituztenak dira.


**3.grafikoa.** Iruñerriko elebidunak ama hizkuntzaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2011)



Iruñerriko egoera zein den hobeki ezagutzeko, interesgarria da Iruñerriko elebidunek, nahiz eta bi hizkuntzak menperatu zeinetan duten erraztasun handiagoa ikustea.


Datuetan oinarriturik eta 4. grafikoak azaltzen duen bezala, Iruñerriko elebidunen ia %70-ak erraztasun handiagoa du gaztelera hitz egiteko. Euskaraz errazago moldatzen direnak soilik %5,8-a da. Datu aipagarri bat 1991 urtekoa da. Bertan euskaraz erraztasun gehiago zuten elebidunen kopurua %40-koa zen eta egun ia erdira murriztu da (%25), hori bai, Nafarroa osoan, ez Iruñerria edo zonalde mistoan bakarrik.

**4.grafikoa.** Iruñerriko elebidunen erraztasuna mintzatzeko momentuan (Eusko Jaurlaritzak, 2011)



Iruñerriko testuinguruan sakonki kokatzeko egokiena da zonalde horretan euskararen erabilpena nolakoa den ikustea. 5. grafikoak azaltzen duen moduan, argi ikusten da zein den gehien erabiltzen den hizkuntza eta zein den euskararen erabilpena. Datuen arabera oso jende gutxik erabiltzen du euskara egunero, biztanleriaren %1,4-ak hain zuzen ere. Biztanleriaren beste %6,7-ak ere euskara erabiltzen du, baina gaztelera baino gutxiago. Beraz, ikus dezakegun bezala biztanleen %91,9-a beti gaztelera hitz egiteko erabiltzen du edo euskara ez den beste hizkuntza batean.

### 5.grafikoa. Euskararen erabilpena Iruñerrian (Eusko Jaurlaritz, 2011)



Argi eta garbi ikus daiteke grafiko hauekin guztiekin hizkuntza batean espresatzeko erraztasuna norberaren ama hizkuntzarekin lotuta dagoela. Hori dela eta, Iruñerriko gazteen ama hizkuntza gaztelania izanik, kasu gehienetan hortik etor daiteke gaztelaniaz egiteko ohitura edota euskaraz egiteko zailtasun handiagoa. Zonalde honen egoera soziolinguistikoa zehazten bukatzeko, hauxe azpimarratu beharra dago: azken 20 urteotan euskara edota gaztelera erabiltzen duten pertsonen kopurua ez dela ezer aldatu.

## 4. HIPOTESIAK

Hasteko, esan beharra daukat ia 5 hilabete eman ditudala ikasle hauekin, egunero 6 ordu inguru eta beraz, badakidala gutxi gora behera bakoitzaren euskara maila nolakoa den. Horrek laguntza pixka bat eskainiko dit hipotesiak planteatzeko momentuan.

Kontuan hartuz haien ama hizkuntza (ikasle batena izan ezik) gaztelera zela eta egokitu zaien errealitatea ez dela batere egokia euskara modu natural eta arinean erabiltzeko, aurrez aurretik imajina dezakegu zein hizkuntza izango den menderatzailea.

Modu horretan, nire iritziz, gaztelera pentsatu eta euskarara itzuliko dutela iruditzen zait. Hori eginez gero, logikoa den bezala, kalkoz eta kode aldaketaz beteriko esaldiak agertzen dira eta horiek mota desberdinekoak izan daitezke:

- 1- Umeek kalkoak erabiliko dituzte: alegia, hitz bat erdaraz erran eta haren ordezkoa euskaraz.
- 2- Hitzen hitzez hitzezko itzulpenak egingo dituzte.
- 3- Esaldiaren ordena logikoa eta sintaktikoa ez dute errespetatuko.
- 4- Etxean euskaraz aritzen den umeak ez du besteak adinako kalkorik egingo
- 5- Etxean euskaraz mintzatzen den umeak kalkoren bat beste hizkuntzan egingo du, hau da, gainontzekoei gertatuko zaien kontrako kasua.
- 6- Galdetegian bat-bateko solasaldietan baino kalko eta kode aldaketa gutxiago azalduko dira.

Aipaturiko oker horietatik, nire ustetan gehien errepikatuko direnak honako bi hauek izango dira: alde batetik, hitzen nahasketa askotan errepikatuko dela uste dut eta modu horretan kode txandaketak sarritan azalduko direla iruditzen zait. Bestetik, ordena sintaktikoa maiz ez dutela errespetatuko pentsatzen dut, eta nahiz eta atal honekin erabat loturik ez egon, ergatiboaren eta pluralaren erabilpenean oker larriak azalduko direla aurreikusten dut. Jakina den bezala, oker horiek euskaraz aritzerakoan agertuko dira, hura baitelako hizkuntz menderatua Iruñerriko euskarazko ikasle gehienek kasuan.



## 5. METODOLOGIA

Gure helburua euskara eta gazteleraren arteko kode aldaketak eta kalkoak behatzea izanik, hizketaldi corpus bat lortu egin dugu metodo desberdinen bitartez. Aipatu beharrekoa da, lortutako hizketaldi guztiak eskola orduetan jasoak izan direla, alegia, eskola ordutegiko edozein unetan (atsedenaldietan, klaseetan, pasabideetan, kiroldegian, irteeretan, e.a.). Esan bezala, metodologia desberdinak erabiliak izan dira, gehien bat helburu desberdinak lortu ahal izateko.

Egindako lehenengo gauza hauxe izan da: elkarrizketa libreetan egondako produkzioa jasotzea, hau da, hizkuntza arduragabea. Lasai daudenean, inolako presio edo baldintzarik gabe lortutako hizketaldiak dira, dena den, hori ez da guztiz egiazkoa arrazoi nagusi batengatik. Haiek bakarrik eta lasai daudenean ez dute euskaraz egiten, eta irakasleren bat gertu ez badago, denbora osoan gazteleraz arituko dira irakasleren bat hurbildu arte. Beraz, horrek asko baldintzatzen du gure lana, haiek nolabaiteko modu behartu batean egiten dutelako euskaraz, ni gertu nagoelako hain zuzen ere. Askotan gertatzen zena honakoa zen: haiek gazteleraz egiten zuten eta ni hurbildu bezain laster euskaraz hasten ziren. Aldiz, zertxobait aldentzen zirenean eta entzuten ez zitzaizela uste zutenean, berriz gazteleraz hitz egitera itzultzen ziren. Esan beharra dago haiek ez zekitela ezer ikerketari buruz, nik nire notak koadernoan edo mugikorrean idazten nituen baina haiei ezer esan gabe.

Kasu honetan bilatzen nuena erregistro informala zen, eta datu hauek biltzeko orduan ez nizkien inolako elkarrizketa bideraturik egiten, ezta galdera edota itzulpenik ere. Ahal zen neurrian, elkarrizketatik kanpo mantentzen saiatzen nintzen baina haurrak direnez, beti galderak edo gauzak niri kontatzen zizkidaten. Egia esanda, nahiko zaila izan da datu hauek jasotzea. Klasean bertan errazagoa izan da, irakaslea barnean egonda euskaraz aritzen zirelako eta dena entzuten zelako. Aldiz, patioko edo gainontzeko orduetan okerragoa

zen, zu izan behar zinelako haiengana hurbiltzen zena eta nolabait haien giroa mozten zenuen, euskaraz hitz egitera behartuz (nahiz eta ezer ez esan).

Segur aski, helduagoak diren pertsonenik errazagoa izango da corpora biltzea edo behintzat euskaraz hitz egiteko ohitura duten hurrekin. Horrekin lotuta aipatu beharra dago, hauek ez zirela salbuespen bat. Ikastetxeko gainontzeko ikasleak ere, nahiz eta beste mailakoak izan beti erdaraz mintzatzen ziren eta berdin zitzaien irakaslea aurrean egotea edo ez.

Bigarren metodoa askoz bideratuagoa da. Kasu honetan galdetegi fitxa bat pasa zitzaien, eranskinetako orrialdeetan ikus daitekeena, eta bertan esaldi sorta bat euskaratu behar zuten. Modu honetan, helburu desberdinak bilatzen dira, esate baterako itzultzeko eta pentsatzeko denbora dutenean zein kalko eta kode aldaketa gertatzen diren. Oso desberdina da bat-bateko solasaldi batean hitz egitea edo gogoeta pixka bat egiteko denbora duzunean esaldi batzuk itzultzea. Hori dela eta, ohikoena izaten da galdetegian erdaraka gutxiago erabiltzea hizketaldi arruntetan baino. Itzulpena dela eta, gerta daiteke ikasleak zertxobait baldintzatuak egotea. Dena den, galdetegiaren bitartez haien erantzunak pentsatzeko eta buruari bueltak emateko denbora gehiago dute. Batzuk oso lotsatiak direnez edo ahozko hizkuntzarekin arazoren bat dutenez, haiei idatzizko edozein frogara, ahozko frogara bat egiteak baino segurtasun handiagoa transmitituko die. Aipatzekoa da, galdetegia diseinatzeko unean, bi faktore garrantzitsu hartu izan direla kontuan.

Alde batetik, ikasleen kalkoak eta kode aldaketak. Hots, bildutako corpusetik ateratako kalkoak eta kode aldaketak erabiliak izan dira, modu horretan ikus daitekeelako ea elkarrizketaren bat-batekotasunagatik sortuak izan diren edo benetan modu horretan barneratuak dituztelako. Beraz, sortutako esaldiak jasotako erdarakaden nahasketa bat direla esan daiteke.

Bestetik, beste faktore bat hartu da kontuan; perpaus motak. Esaldiak prestatzeko orduan kontu handia eduki da perpaus motarekin, eta horregatik egindako sei esalditatik, seiak perpaus mota desberdinekoak dira. Hauek izan dira erabilitako sei mota desberdinak:

- 1- Zehar galdera
- 2- Konpletiboa
- 3- Kausazkoa
- 4- Baldintzazkoa
- 5- Erlatibozkoa
- 6- Galde perpausa-bai/ez eratakoa

Ikus daitekeen moduan, perpaus bakun bakarria aurki daiteke, azkenekoa hain zuzen ere. Ohikoa den esaldi hori eta eskoletan egunero mila aldiz entzuten dena, arrazoi zehatz batengatik jarrita dago. Egunero erabiltzen duten esaldi bat da, baina nahiz eta egunero erabili eta idazteko zein pentsatzeko denbora izan, ziurrenik ia denak gaizki egingo dute. Ez dute kalko edo kode aldaketarik egingo, esaldia oso laburra eta xumea delako, baina gaztelera haien euskaran duen eragina aztertzekeo balioko zaigu. Denek gazteleraren ordena logiko eta sintaktikoa erabiliko dute eta nahiz eta kode txandaketa ez izan, kode batek bestearengan duen eraginaz jabetzeko balioko zaigu.

Gainontzeko perpausak haien euskara mailari egokituak izan dira, hau da, esate baterako perpaus kontzesiboak edo kontsekutiboak alde batera utzi egin dira haientzat zailtasun handiegikoak izan daitezkeelako. Beste perpausak ordea, suposatzen da gutxi gora behera menperatu beharko lituzketela, hiru urte zituztenetik euskaraz ikasten ari dira eta.

Galdetegi honek ez du inongo puntuaziorik, hau da, esaldiek balore bera dute eta helburua euskararen eta gazteleraren arteko interakzioak aztertzea da, besterik ez. Horregatik ikusi nahi dena da, zer nolako aldea dagoen bat-batekotasunaren eta idatziz euskaratzeko gaitasunaren artean.

Hirugarren metodo bat erabilia izan dela esan dezakegu, kasu honetan grabaketak izan dira. Grabaketak mugikor batekin eginak izan dira eta aurretik aipaturiko bi metodoen tartean kokatu ditzakegu. Bien artean kokatuak daudela esaten dugu hain zuzen ere, ez direlako solasaldi erabat askeak (zertxobait

bideratuak izan direlako) eta bestetik bat-batekotasuna ere mantentzen dutelako. Hauek bi modu desberdinetan grabatuak izan dira; alde batetik beraiek ohartzen ez zirenean, nahiz eta egia esanda, grabaketa hauek oso eskasak izan. Horri gehitu behar zaio grabaketa hauek ez direla oso ongi entzuten haur asko aldi berean hitz egiten zutelako. Horretaz gain, grabatzen ari nintzela jabetzen zirenean, hizketaldia erabat mozten zen eta hizkera oharkabea bertan behera eteten zen.

Bestetik, kontaketen grabazioak ditugu. Grabaketa hauetan, soinuaren kalitatea askoz hobeagoa da, ikasleek beste ikaskideekin hitz egiten ez dutelako eta grabagailua ezkutatzeko beharrik ez dagoelako. Kasu hauetan haiek bazekiten grabatuak izango zirela eta horregatik baten bat lotsatzen zen eta hasieran ez zuen parte hartu nahi. Ordu asko zirenez, ia egunero gutxi batzuk egiten zituzten grabaketak eta hurrengo egunean beste batzuk. Azkenean, denek parte hartu zuten ekintza honetan eta lotsa gutxien zeukatenean behin baino gehiagotan grabatuak izan ziren. Kontaketa askeak grabatu egin zitzaizkien, hau da, normalean asteburuan egindakoa edo haiek kontatu nahi zuten zerbait. Bitartean, irakaslearen laguntza edo babesa zuten eta euskaraz inprobisatzea asko kostatzen zitzaenez, honek galderen bitartez bideratzen zuen haurren kontaketa. Ez zitzaien inolako denborarik uzten ez pentsatzeko, ezta ezer idazteko ere. Beraz, nahiz eta elkarrizketa bat ez izan, bat-batekotasuna mantentzen jarraitzen da eta kalkoak zein kode txandaketak jasotzeko aukera eskaintzen du.

## **6. LORTUTAKO DATUEN BEHAKETA ETA HAUEN ONDORIO ZEHATZAK**

Bildutako datu guztien analisi eta azterketa egiteko, bi atal desberdin bereziko ditugu. Lehenengo atalean, haurrei egindako galdeketa frogaren behaketa egingo da eta jarraian, bigarren atalean, gainontzeko corpus-arena. Behaketa bakoitzaren ondoren, honi dagozkion ondorio zehatzak idatziak azalduko dira.

### **6.1. Galdetegiaren analisisia**

Galdetegiaren emaitzak aztertzeari ekiteko, lehenik ikasleek froga nola egiten zuten aipatu beharra dago. Klaseko gehiengoak 10-15 minutu bitarte eman zituen fitxa osoa betetzeko eta 16tik, 2 ikasle egon ziren denbora gehiago behar izan zutenak (20-25 minutu bitarte). Azpimarratu behar dugu bi ikasle horietatik, bata ez zituela gure azalpenak entzun eta galderei erantzun ziela, euskaratu beharrean. Beraz, horrek dena ezabatu behar izan zuen eta berriz hasieratik fitxa betetzen hasi. Besteak ordea, ikasgai gehienetan zailtasunak ditu eta normalean, klaseko lan gehienetan, gainontzeko ikaskideak baino motelago aritzen da lanean.

Gogoratu behar dugu mota honetako ariketak, normalean, euskaraz ikasten duten ikasleen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) egiten direla. Ez da oso ohikoa Lehen Hezkuntzan egitea, nahiz eta kasu honetan institutuko ariketekin alderatuz, esaldien zailtasuna baxuagoa izan.

Normala den bezala eta edozein ariketa egiterakoan gertatzen den bezala, ikasle askok zalantzak zituzten eta galderak egiten zizkiguten. Guk ez genien ezer erantzuten, bakarrik haiek uste zuten moduan egiteko esaten genien, gogoraraziz ez zela notetarako hartuko. Logikoa den bezalaxe, ariketa egiten ari ziren bitartean hiztegiak erabiltzea edota ondoko lagunari galdetzea debekatu egin genien.

Esaldi bakoitzaren analisi eta ondorio zehatzekin hasi baino lehen, gustatuko litzaidake azpimarratzea galdetegiaren helburua zein izan den. Aipatu dugun bezala, inoiz ez edo oso gutxitan egindako ariketa bat denez, gure helburua ez da haiek ongi edo gaizki egiten duten ikustea, baizik eta gaztelerak haien euskararengan sortzen dituen interferentzia motak behatzea.

#### *6.1.1. Lehenengo perpausa (zehar galdera):*

- *No nos han preguntado cuánto rato queremos estar corriendo. ¡Yo ya estoy sudando!*
- Ez digute galdetu zenbat denbora eman nahi dugun lasterka. Ni dagoeneko izerditan nago!

Behar bada, lehenengo galdera hau, ipinitako 6 galderetatik zailena dela esan dezakegu. Esaldi hau kenduta, korapilatsuena baita, gainontzeko bostak errazagoak dira, honako hau baino askoz sinpleagoak. Horregatik hain zuzen ere, 2 ikasleek ez zekiten nola egin galdera hau. Azkenean, laguntza txiki bat eskainiz, bi ikasleak euren esaldiak egiteko gai izan dira.

16 ikasleetatik, soilik ikasle bakarra izan da esaldia behar bezala itzultzeko gai. Ikasle hori, eskolan zein eskolatik kanpo beti euskaraz mintzatzen den eta euskara ama hizkuntza duen ikasle bakarra dela aipatu behar dugu.

Esaldi honetatik hitz esanguratsuak honakoak ziren:

*Rato*. Gehienek ongi egin dute eta ez dute *rato* gaztelerazko hitza erabili. Lau ikasleek “denbora” idatzi dute, eta hortxe argi ikus daiteke gazteleraren eragina, gazteleran “b” hizkiaren aurretik “n” erabili ordez, “m” idazten delako. Ikasle batek “ordu” hitza erabili du eta beste batek aldiz, *rato* kalkoa erabili du. Kalko hura erabili duen pertsona bakarra izan da. Orokorrean gehienek nahiko ongi egin dute, ez baitute kalkorik erabili eta “denbora” termino euskalduna erabili dute itzultzerakoan.

*Corriendo*. Gehiengoak “korrika egin”, “korrikatzen” edo “korrikan egon” esamoldeak erabili ditu. Ikasle bakar batek “corrica egin” idatzi egin du eta beste batek “corrican egon”. Inor ez du “lasterka egin” esamoldea erabili, baina hura ez erabiltzea oso arrunta da, “korrika” hitza euskal gizartean oso erabilia eta zabaldua dagoelako.

*Ya*. Aditzondo honekin bilatzen genuen helburua honakoa zen: euskaraz zenbatek “ya” jartzen zuten ikustea, gaztelerazko hitza modu berdintsuan txertatuz eta euskarazko “jada”, “dagoeneko” edo “jadanik” terminoak erabili gabe.

Askok ez dute aipatu ere egin eta esaldia hitz hori erabili gabe idatzi dute. Beste batzuek, ordea, “lla”, “ja”, “ya” edo “ia” idatzi dute, nahiz eta gehienek ezer ez jarri. Kasu honetan, aurrekoan bezala, inork ez du euskal termino egokia erabili.

*Sudando*. Aditz honekin, askok erdaratik ateratako kalkoak sortu dituzte. 6 ikasle izan dira itzulpena behar bezala egiteko gai izan direnak. Nahiz eta gorputz heziketako ikasgaiari irakasleari astero entzuten dioten hitz bat izan, beste 10-ek gaizki egin dituzte euren itzulpenak. Horien artean kalko oker ohikoena, gaztelerazko aditzari euskal gramatikaren *-tzen* atzizkia gehitzea izan da. Beraz, gehienek “sudatzen” terminoa erabili izan dute. Hala ere, beste batzuk ere aurki ditzakegu; “nago sudando” edota “nago sudatuta”.

Beste alderdi batzuk azpimarratzea ere interesgarria dela iruditzen zait. Hurrengo puntuetan ikus daiteke zer nolako eragina duen gaztelerak haur hauengan:

- Askok esaldiaren zatiak asmatzen dituzte eta antzeko esaldi bat sortzen dute, esanahia zertxobait aldatuz: “zenbat denbora nahi dugu *zuzentzen*” edo “zenbat dembora egon bear gare korrikatzen *patioan*”
- Gaztelaniaren ordena logikoa eta sintaktikoa mantentzen dute nahiz eta euskaraz idatzi: *yo ya estoy sudando* -> *ni ya nago sudatzen*. Hitzak trukatu besterik ez dute egin.

- Ortografia hutsegiteak ere ageriak dira, esate baterako: “bear” edota “nai”
- Ergatiboa ez dute behar bezala menperatzen: “nik nago”
- Aditzak ez daude perpausari egokituak: “zenbat korrika egin nai duzue”, “zenbat denbora egon behar gara korrikan”, edo “zenbat denbora egon nahi dugu” esate baterako.
- Haiek izan beharrean, askok *hark* jarri dute edo okerra den aditz bat: “ez digu galdetu”, edo “guri ez dute galdetu”

### 6.1.2. Bigarren perpausa (konpletiboa):

- *Yo sé que mañana Iñigo nos cambiará a todos de sitio.*
- Nik badakit Iñigok bihar tokiz aldatuko gaituela guztioi.

Bigarren esaldi hau gehienek nahiko ongi egin dute baina inork ez du esaldi erabat zuzena sortu. Ikusten da euskarazko esaldi mota honen egitura menperatzen dutela, gehienek *-(e)la* atzizkia erabili dute eta. Hori bai, denek “digula” atzizkia erabili dute “gaituela” atzizkia erabili beharrean. Beste batzuk ez dute atzizkia ipini eta “aldatuko digu” bakarrik jarri dute. Eta beste bi ikasleren kasuetan, esaldiak zentzu osoa galtzen du: “ni dakit biar Iñigo tokis aldatuko dutela” eta “Nik dakit biar Iñigo nor aldatuko digute denok tokitik”.

Bat baino gehiago “tokiz” idatzi beharrean, gaztelaniazko plural marka erabili du, hots, “s” hizkia gehitu dio “toki” hitzari: “tokis”.

Bigarren perpaus honetan ikasle bakarra egon da kalkoa erabili duena eta *nos cambiará* aditzan, “kambiatuko digu” idatzi du. Gainontzekoek “aldatu” hitz euskalduna modu egokian erabili dute.

Esaldi honetan aurreko esaldiaren oker berak hauteman ditzakegu: ergatiboa (ni badakit), ortografia (biar) eta elementuen ordena edo aditz desegokia.



### 6.1.3. Hirugarren perpausa (kausazkoa):

- *Eneko ha sacado un diez en el examen porque le ha copiado a Lorea.*
- Enekok azterketan hamar bat atera du Loreari kopiatu diolako.

Esaldi honen gakoa *porque* juntagailuan aurkitzen da. Dena den, betidanik euskaraz ikasiak izan dira eta berez, kausazko esaldiak oso erabiliak izaten direnez, menperatu beharko lituzkete. Hala eta guztiz ere, haurren ahozko hizketaldian *porque* hori askotan entzuna izaten den elementu bat da.

Egia esanda, oso esaldi xumea da eta gehiengoak ongi egin du. Dena den, batzuk nahiz eta *porque* hori zuzenean ez txertatu, bere itzulpena erabili dute. 4 ikasle besterik ez dira izan, baina hauek honela jarri dute: “Eneko atera du hamar bat azterketan zergatik kopiatu diola/du Loreari/Lorearena”

Ikasle bakarra izan da kode aldaketa erabili duena, zehazki esaldi barneko kode aldaketa: “Eneko atera du hamar bat *en el* azterketan zergatik *copiatu* dio Loreari”. Gainera adibide horretan ikusten da erabat soberan dagoela *en el* jartzea, azterketa hitzari *-n* atzizkia jarri baitio. Gero kalko oker bat egiten du; *copiar* hitzari, euskarazko aditza bilakatzeko saiakera batean, *-tu* atzizkia gehitzen dio. Kasu honetan, ez zaigu arraroa egiten eta ez du arreta gehiegi deitzen, fonologikoki ongi dagoelako; euskaraz “kopiatu” esaten baita. Beraz, ikusten da ez dela oker ortografiko bat izan, baizik eta *copiar* hitzaren euskarazko ordezkua ez zekienez, aditz hori euskaratzen saiatu egin da. Adibide honetan sortutako hitza ez dirudi erdararen eragin handia duenik, oker ortografiko bat besterik ez dela pentsatu dezakeelako jendeak. Hala ere, aurrerago ikusiko ditugun beste adibide batzuekin argiago ikusiko da mota honetako kalko okerrak edo erdarakadak.

Egindako kalko okerren artean, “sacatu” aditza aurkitzen dugu. “Atera” idatzi beharrean, aurreko *-zen* atzizkiarekin gertatu den bezala, kasu honetan *-tu* atzizkia gehitu dio gaztelerazko *sacar* hitzari. Aipatzekoa da, ikasle bakarra izan dela kalko hori egin duena, baina askok “ateradu” idatzi dute.

Ergatiboaren –k marka jartzeko kasu argia zen esaldi hau, baina ikasle gehienek aurreko kasuetan bezala, nahi duten tokietan jartzen dituzte markak. Kasu honetan askok “Eneko” jarri dute “Enekok” jarri behar zen tokian. Ortografiarekin ere hutsegiteak nabaritzen zaizkie, esate baterako, “amar bat” edo “asterketan”.

#### 6.1.4. *Laugarren perpausa (baldintzazkoa):*

- *Si Mikel no explica lo que pasó, esta semana nos quedaremos sin patio.*
- Mikelek gertatu zena azaltzen ez badu, aste honetan patiorik gabe geratuko gara.

Esaldi honetan baldintzazko perpausen egitura erabili beharko dute ikasleek, hau da, honako egitura: “...ez badu...geratuko gara”. Suposatzen da, ez dela oso esaldi konplexua baina hala ere, ikasle kopuru altu batek gaizki egin du arrazoi desberdinengatik.

Gazteleraren eragin nabarmena antzeman daiteke esaldi honetan. Batzuk gaztelerazko “Si no...” estruktura gramatikalean oinarritzen dira eta gazteleraz egiten den bezala, esaldiaren hasieran kokatzen dute:

- “Bai Mikel ez du...” (*Si Mikel no explica...*)

Beste batek gauza bera egin du, baina “si no” esamoldea “bestela” hitzarengatik ordezkatur:

- ... *bestelas* patiorik gabe geratuko gara (*si no nos quedaremos sin patio*)

Horretaz gain, ikus daiteke *explicar* hitzaren kalkoa ikasle batek baino gehiagok egin duela. 5 izan dira “explikatzen” aditza erabili dutenak eta gainontzekoek azaldu edo esan aditzak.

Arreta deitzen duen beste gauza bat “patiori gabe” jartzea da, “patiorik gabe” jarri ordez. Horretan askok egin dute huts eta beste batzuk aldiz, ez diote baldintzaren marka ipini aditzari. Hainbat ikaslek, jarri egin dituzte baina beste pertsona marka batekin. Beste batek ordea, hitz berri bat asmatu egin du eta

asko harritu nau ikasle honek horrelako esaldia egitea, gaitasun handiko ikasle bat izanda: “Mikelek ez baldimadin badu...”

Aurreko esaldiko gauza bera gertatzen da ergatiboarekin, gutxi gora behera klase erdiak ongi jarri du, baina beste batzuk aldiz, *-k* markarik gabe idazten jarraitzen dute.

Komaren erabilpena azpimarratzeko elementu bat da. Haiek bai gazteleraz eta baita euskaraz ere, puntuazio ikurrak landu dituztelako eta jatorrizko esaldian koma jarrita agertzen delako. Hala ere, 16tik bakarrik 5 ikasleek jarri dituzte.

Ikasle batek *semana* hitzarekin egindakoa aipatzekoa iruditzen zait. Nahiz eta hitz arrunta eta askotan entzundakoa izan, berak momentu horretan ez zekien nola zen hitz hori euskaraz. Hori dela eta, “*semana*” idatzi egin du, komatxoaren tartean, era horretan euskarazko esaldi batean txertatua izan den gaztelerazko termino bat dela adieraziz. Adin horretako haur bati, beste hizkuntza bateko hitz bat modu horretan adierazia ikusten dudan lehenengo aldia izan da eta asko harritu nau. Beraz, kalko oker bat egin baino lehen, berak erabaki du hobe dela komatxoaren artean kokatzea, jakinarazteko hitz arrotz bat txertatua izan dela.

Lehenengo esaldiarekin gertatzen zen bezalaxe, perpausaren elementu batzuk nahieran aldatzen dituzte eta zentzu desberdina hartzen du esaldiak. Horren adibide dira, hala nola:

- Mikelek ez badigu esaten zer gertatu zen *bihar* patiorik gabe geratuko gara
- Mikelek ez dio *andereñoari* ser gertatu zen atzo ez gara patiora aterako
- Mikel ez badu esaten zer gertatu zen *goiz onetan* geratuko gara patiorik gabe
- Mikel ez badu esaten zer *gertatuda hasten pasatuan*

#### 6.1.5. Bosgarren perpausa (erlatibozkoa):

- *La chica que aparece en ese libro se parece mucho a mi prima.*
- Liburu horretan agertzen den neskek nire lehengusinarekin antza handia dauka.

Esaldi hau ikasgelako haur guztiek gaizki egin dute, ikasle bakarra izan ezik, hain zuzen ere, euskaldun zaharra den ikaslea izan ezik (nahiz eta garrantzitsuak ez diren oker batzuk izan). Honek “antza dauka” esamoldea erabili duen ikasle bakarra izan da. Esaldiaren mamia se *parece* aditza darama, eta horretan gehienak kale egin dute. Batzuk, zuzenean kalko okerra egin dute eta ohiko *-tzen* partikula gehitu diote hitzari: “parecitzen”. Gainontzekoek, gazteleraren kalko semantikoa egin dute. Gaztelerazko *parecer* aditza testuinguru desberdinetan erabiltzen da, esanahi desberdinekin, baina beti *parecer* aditza jokatzen. Euskaraz ordea, hitz desberdinak ditugu, alde batetik “iruditu” izan daiteke, eta bestetik “antza izan”. Adibidez: *pareces tonto* (ergela dirudizu) edo *me parece mal lo que has hecho* (gaizki iruditu zait egin duzuna). Gure kasuan, “antza eduki” esamoldea erabiltzeko egokiena zen eta gehienek “iruditu” aditzari esanahi berri bat gehitu diote, kalko semantikoekin gertatzen den bezala. Hori dela eta, gehienek honelako esaldiak egin dituzte, aditza modu desberdinetan jokatuz:

- “Liburuan ateratzen den neska ori, nire lengusinari, *asko diruditzen da*”
- “Agertzen den neska liburuan *dirudi du nire lengusua dela*”
- “Liburuan agertzen den neska riduritzen du nire lengusina”

Kode aldaketaren bi adibide topatzen ditugu esaldi hauetan, biak esaldi barneko kode txandaketak dira. Gaztelerazko preposizioak erabiltzen dituzte esaldiaren zentzua mantentzeko eta lokailu bezala bi hizkuntzen artean:

- 1) *La neska que apareciten dena liburu orretan pareciten da nire prima*
- 2) *Neska ori diruditzen a nire lengusiña*

Beste batzuk esaldi erabat zentzugabeak sortu dituzte, elementuak edozein ordenan jarriz eta hainbat elementu desagertuz, adibidez:

- “Neska dirutitzen da liburu horretan asko nire lengusiñari”
- “Neska aparezitzen liburuan asko nire lengusuari”

Ikasle bakarra egon zen esaldi hau euskaratzen ez zekiena. Besteek, nahiz eta modu oker batean egin, ez zuten ezer galdetu eta haiek bakarrik egin zuten, inolako laguntzarik jaso gabe. Ikasle honi, laguntza txiki bat eman zitzaion bere blokeoa gainditu zezan, besterik ez. Ikasle honen kasua eta lehenengo esaldian aipatutako beste bi kasuak kontuan harturik, orotara 3 esaldi izan ziren itzultzeko gai izan ez zirenak. Guztira 96 esaldi izan direla kontuan harturik, kopuru nahiko baxua izan dela esan daiteke. Dena den, laguntza pixka batekin, hiru esaldi horiek haien kabuz burutzea lortu zituzten.

#### 6.1.6. *Seigarren perpausa (Galde perpausa, bai/ez eratakoa):*

- *¿Puedo ir al baño?*
- Komunera joan naiteke?

Aurreko atalean esan bezala, galdera oso sinplea da eta nahiz eta tontakeri bat iruditu, galdera behar den bezala ez dute ia inoiz egiten. Normalean aditz trinkoak ez dituzte sekulan erabiltzen eta horrelako kasuetan beti gaztelerazko itzulpenez baliatzen dira. Hitzez hitzezko itzulpena egiten dute, esamolde osoaren kalkoa eginez eta logikoa den bezala, itzulpena erabat okerra da:

- *Puedo – ir – al – baño?*
- *Ahal – naiz – joan – komunera?*

Datu aipagarri bat da euskara ama hizkuntza duen ikasleak aditz trinkoak erabiltzen dituela (naiteke, dezaket, e.a.) bai idazterakoan zein hitz egiterakoan. Horrelako aditzak erabiltzen dituen ia ikasle bakarra dela esan dezakegu.

Esaldi honen emaitzak, hain esaldi xumea izanda, hiru multzotan sailkatu ditzakegu, hiru esaldi desberdin egin dituztelako:

- 1) “Al naiz joan komunera?” Esaldi egitura hau 6 ikaslek erabili dute, eta lehen aipaturiko hitzez hitzezko itzulpena da. Itzulpen okerra noski.
- 2) “Komunera joan naiteke?” Beste 6 ikasleek esaldiaren itzulpen zuzena egin dute. Dena den, esaldi honetan hutsegite ortografikoak egitea nahiko arraroa da, kontuan izanik hiru hitzez osaturiko esaldi labur bat dela eta egunero irakur dezaketena, gelako horman itsatsia baitago.

Ahala eta guztiz ere, “juan” edo “nahiteke” bezalako hitzak azaldu egin dira.

- 3) “Al dut joan komunera?” Honako esamoldea 4 ikasleek besterik ez dute erabili. Lehenengoaren antzeko kasu bat da, gaztelera-ko estruktura berdina mantentzen duena, euskaraz erabat okerra izanik.

#### *6.1.7. Ondorio zehatzak*

Atera dezakegun ondorio nagusia honakoa da; hurrek itzultzerakoan ere, nahiz eta denbora izan esaldiak zein ideiak ongi antolatze-ko, pentsatzeko eta barne gogoeta egiteko, kode aldaketak eta kalkoak egiten dituzte. Egia da, ahozko-otasunean baino kode aldaketa eta kalko gutxiago egiten dituztela.

Horren adibiderik garbiena azkeneko esaldian topa dezakegu. Ez dakit zehazki zenbatetan galdetu egin didaten komunera joateko, baina ziurrenik ehun aldiz baino gehiagotan bai. Hala eta guztiz ere, galdera behin ere ez didate behar bezala planteatu eta beti esamolde okerrak erabiltzen zituzten, gaztelera-ko hitzez hitzeko itzulpenak, hain zuzen ere. Beraz, euskaratzeko unean, nik uste nuen denek kalko-ko beteriko esaldiak egingo zituztela baina ezustekoa hartu nuen galdetegiak jasotzerakoan. Ikasle kopuru altu batek (espero nuena baino altuagoa) idazteko momentuan, esaldi egokiak egiten ditu, kalko gutxiarekin eta euskarazko adierazpenez baliatuz. Aldiz, ahozko hizketaldietan, bat-batekoak diren horietan, ikasleek kalko eta kode aldaketa ugari erabiltzen dituzte.

Hortaz, euskararen egitura ez dute behar bezala barneratua, bat-bateko-otasuna agertzen denean, ohiko gaztelera-ko estruktura-ko jotzen dutelako. Aldiz, hausnartzeko denbora dutenean, logikoa den bezala, euskaraz gaztelera-ko baino gehiago pentsatzen dutela esan dezakegu.

Nahiz eta tankera honetako ariketak egitera ohituak ez egon, sendotasun handiarekin esan dezakegu erakutsitako euskara maila, orokorki, ez dela oso ona izan. Ez dugu ahaztu behar idatzizko esaldiak direla eta hauek behar bezala egiteko denbora aski izan dutela. Hala ere, orokorrean aztertuz,

hutsegite gehiegi egin dituzte eta esaldi batzuk behintzat nahiko errazak dira hainbeste oker egiteko. Ez naiz ortografiatzko hutsegite arruntei buruz (onek, biar, lengusiña) hitz egiten ari, baizik eta haien euskarazko egiturei buruz (hiztegi falta, zuzentasun falta, estruktura gramatikal okerra...). Aipatzekoa da kasu desberdinak aurkitu ditudala haurren tartean, horietatik azpimarragarriena, inolako zalantzarik gabe, euskara ama hizkuntza duen ikaslearena.

Ikasle honek esaldietako funtsezko egituretan edo zailtasuna nahita ipinia zegoen tokietan ez du hutsik egin. Normala den bezala, hutsegiteren bat izan du baina garrantzi baxuko hutsegiteak izan dira (lehen aipatutako “h”-ren bat ahaztea edo horrelako oker arruntak). Beste ikaskideek egindako esaldiekin alderatuz, froga honekin gainontzekoen eta bere artean dagoen aldea izugarri handia dela erakutsi egin du berriro ere. Bai ama edo bai aita euskalduna zuen ikasleren batek ere, perpausak nahiko ongi itzuli ditu orokorrean, baina nabaria da ez duela momentu oro euskaraz hitz egiten, aurreko kasuko neskarekin gertatzen den moduan. Guraso erdaldunak zituzten haurren artean emaitza kaxkarrenak egon dira, erabat logikoa den bezala.

Aipatu dugun bezala, haien lexikoa oso urria da eta hori dela eta, argiago ikus daiteke erdararen eragina. Normalean euskara komunikatzeko tresna gisa erabiltzen ez dutenez, euskaraz hitz egiteko orduan haien hiztegia nahiko murriztua izaten da. Une horretan, ezagutzen duten eta normalean mintzatzen diren hizkuntzatik, hots, gazteleratik, hitzak mailegatuak hartzera behartuak ikusten dira. Modu horretan ikusitako kode aldaketak eta kalkoak sortzen dira.

Esan beharra dago, kode aldaketaren adibideekin konparatuz kalkoen adibide gehiago azaldu direla. Hala ere, normalagoa da hori horrela izatea, azkenean esaldiak laburrak eta sinpleak direlako (haurrak direnez ezin zaie esaldi luze eta konplexuak jarri). Helduagoak izango balira, esaldi luzeagoak jarriko nituzke kode txandaketaren adibide garbiagoak azaltzeko baina, gogoratu behar dugu zein testuingurutan bizi diren eta zein den haien euskara maila.

Aipatutako guztiaz gain, ikus daiteke zer nolako arazoak dituzten ergatiboaren erabilpenarekin, atzizkiak erabiltzeko mekanismoekin, pluralen markekin edota aditzen kokapenarekin.

## 6. 2. Gainontzeko Corpus-aren analisia

Bigarren atal honetan, bildutako gainontzeko datuekin lan egingo dugu, hau da, edozein unetan hartutako esaldiekin eta grabazioetatik lortutako hizketaldiekin.

### 6.2.1.Kode aldaketa

Lanaren hasieran aipaturiko teorian oinarriturik, hiru kode aldaketa desberdin aurkitzen ditugu eta hurrengo lerroetan datorren sailkapena, horien arabera antolatua egongo da: esaldi barneko kode aldaketa, esaldi tarteko kode trukaketa eta hitz gakoek kode txandaketa.

#### 6.2.1.1. Hitz gakoak

Hizkuntza txandaketaren tipologia honetan, bildutako corpus-ean, bakarrik gaztelarazko esamoldeak euskarazko perpausetan txertatuak aurki daitezke. Kontrako kasuaren adibiderik ez da lortu, oso zaila baita. Antzeman daiteke beraz, zein den haur hauek bizi duten testuingurua eta haien ama hizkuntza zein den. Mota honetako adibideen artean honakoak azaldu dira:

- 1) *Pero*, zein da hori?
- 2) Hodei, *al menos* sakatu koaderno!
- 3) Nago fiebrearekin, *es que* dut asko beroa

*Es que* esamoldea azalpenak emateko askotan erabiltzen duten terminologia da. Hitz makulu horretaz baliatzen dira, adibidean ikus daitekeen moduan, gehien bat gauzak justifikatu behar dituztenean: “*es que* liburua gelan utzi nuen eta...”

- 4) *Pues entonces* da Irunerena!



*Pues* askotan erabiltzen duten esamoldea da. Elkarrizketetan erantzun bati hasiera emateko erabiltzen dute: “lurrean aurkitu dudan arkatz hau norena da? –*Pues* nirea ez.” edo zerbait kontatzerakoan: “*pues* ni egon nintzen...” edota orduarekin batera “*Pues* orduan egin beharko duzu beste bat”

- 5) *Que* kostatu zaigu rato asko egitea e!
- 6) *Ay, si* naiz arduraduna!
- 7) *Hala, pues* enfriatuko zara!
- 8) Ba...esaten du, *sin mas...*

*Sin más* esamolde horri buruz Orreaga Ibarak (2011:282) honakoa jasotzen du:

*“Es sabido (Briz, 2001: 134; Rodríguez, 2002: 152) que últimamente, una de las más utilizadas entre los jóvenes castellanoparlantes es la expresión sin más. Una de las que más aparece, utilizada como atenuante y resumidor de situaciones. También lo es en el euskera actual juvenil:  
- Ta esan zuen in behar genuela hori, sin más”*

- 9) *Por si* acaso eman liburua
- 10) *Tío*, robatu didazu nire motxila

Esamolde hori entzun nuenean harritu ninduen, gazteen hizkeraren parte zela uste nuelako eta ez haurren hizkerakoa. Gogoratu behar dugu 8-10 urte bitarte dituztela eta egia esanda, denek ez dute esamoldea erabiltzen. Hala ere, kopuru altu batek esamolde horren erabilpena egiten du egunero, baina klasetik kanpo, hau da, lasai daudenean eta hizkera informalean mintzatzen direnean.

- 11) Nahi dut izatea *ya* bihar
- 12) Lehenengo moztan dut nik eta gero zuk, *vale*?

Hamaikagarren eta hamabigarren adibideetan agertzen diren elementuak, *ya* eta *vale*, eguneroko hizkeran oso errepikatuak izaten dira.

Aurreko atalean esan bezala, *ya*-ren euskarazko baliokideak ez dituzte inoiz erabiltzen eta gaztelerazko esamoldea erabiltzen dute beti. *Vale* interjekzioarekin antzeko gauza gertatzen da. Segun eta noiz erabili behar dugun, testuinguruaren arabera ordezeko hitzak bilatu beharko genituzke eta gure esaldia haien bitartez euskara zuzenera egokitu: “aste honetan ez dugu azterketarik edukiko. – Ederki!” edo “primeran” terminoak erabili ditzakegu *vale* orde. Beste egoera batean: “ez bota gehiago! Aski da!” eta modu horretan erdarazko interjekzio hori erabiltzea ekiditen dugu.

- 13) Baina, *entonces*, hau egin behar da eta hau ez?
- 14) *Igual* da ikusi ez dizulako
- 15) Baina, *por ejemplo*, lehenengo ariketan jarri ahal da...

*Igual* askotan txertatzen duten elementu bat da eta mota horretako esaldiak adin horretako ikasleen artean oso entzunak izaten dira. Oso erabilia den aditzondoa da, eta nahiz eta bere euskarazko ordezkoa (agian) erabili, normalean estruktura bera mantentzen dute, perpausaren hasieran kokatuz: “agian galdu da” edo “*igual* gaixorik dago”

*Por ejemplo* esamoldearekin gauza bera gertatzen da. Oso barneratua dute gaztelerazko egitura hori eta nahiz eta haiek jakin euskarazko esamolde egokia “adibidez” dela, bat-batekotasunean ia beti gazteleraz egiten dute. Kasu horretan, *por ejemplo* euskaraz nola esaten den galdetuko bagenien eta pentsatzeko denbora pixka bat emanaz gero, ziur nago denek ongi egingo luketela. Aldiz, bat-batekotasunean gaztelerak haien euskararengan indar are handiagoa duela ikusten da.

- 16) Tokatu zait zurekin, *en serio*?
- 17) *Si claro!* Eta zuek elegitzen duzue denak ez?
- 18) *A ver*, Nork aterako du corner?

*A ver* gaztelerazko esamoldea sarritan erabiltzen duten adierazpen bat da. Ikus dezagun zer nolako erabilpena ematen dioten hain ospetsua bilakatu

den hitz makulu honi. Haurrek asko erabiltzen dute eta haren inguruan, Ibarrek (2008:403-404) honakoa jasotzen du:

*“El aber! se utiliza como advertencia, con valor de reformulación y añadido valorativo, con un valor en ocasiones de digresión, además de introducción de frases interrogativas indirectas; últimamente se escucha en el lenguaje de los jóvenes. Una señal de la integración de la expresión a ver en el léxico vasco, viene dada por la transcripción que ellos hacen: aber, con grafía vasca, escribiendo todo junto [...] También se utiliza como introducción de frases interrogativas indirectas”*

#### 6.2.1.2. Esaldi tartekoa

Kode aldaketaren bigarren tipologia honetan, bi hizkuntzetako perpausak tartekatzen dira. Esaldi osoak tartekatuak izaten dira eta hauek hizkuntza bakoitzaren estruktura gramatikala zein arau sintaktikoak errespetatu behar dituzte.

Lipski-k (2005) aipatutako kode aldaketa erabat elebidunak diren pertsonen artean agertzen dela defendatzen du. Poplack (1982) perpaus tarteko kode aldaketari buruz ere mintzatu da. Bere esanetan, tipologia hau hizkuntza bietan gaitasun gehien dituzten elebidunek erabiltzen dutela jasotzen du. Azkenik, Ibarrek (2011) honako tartekatze tipologia mota bi hizkuntzen arteko elkarbizitza luze baten ondorioa dela eta erabiltzeko hizkuntza biak menderatu behar direla dio.

Ikus daitekeen moduan, tipologia honetako kode aldaketak agertzeko, adituek hizkuntza bietan maila ona edukitzea beharrezkoa dela defendatzen dute. Gure ikasleen maila nolakoa den jadanik azaldu egin dugu eta ezin dezakegu esan bi hizkuntzak menderatzen dituztenik. Hori dela eta, oso kasu gutxitan (ia inoiz ez) erabiltzen duten kode txandaketa da, eta bildutako corpus-ean adibide bakarra aurki ditzakegu, besterik ez:

19) Badakizu *que* dakit zein den Australiako *la capital*; Canberra, *a que soy muy listo!*

Teoria kontuan hartzen badugu, esaldi hura euskaldun zaharra den ikaslea ez esatea harrizkoa da, euskara mailarik altuena du eta. Justu kontrakoa gertatu da, hizkuntzarekin arazoak dituen haur bat izan da eta horregatik euskarazko ikasgaiari beste irakasle batekin bikoizketa gela batera joaten da.

Nahiz eta esaldi barneko kode aldaketa egon lehenengo perpausean, argi ikus daiteke nola esaldi tarteko kode aldaketa agertzen den. Esaldi nagusia euskaraz hasten du eta gero gaztelaniazko beste esaldi batekin amaitzen du. Gotzon Aurrekoetxea eta Lorea Unamunoren (2011:29) ikerketa lanetik ateratako ondorio bat azpimarratzea gustatuko litzaidake:

*“ Euskara eta gaztelaniaren arteko kode-aldaketa arruntena honako hau da: euskaraz hasten dut y termino en español”*

Beraz, ikus daiteke kasu ohikoena euskaraz hastea dela, perpaus nagusia hizkuntza horretan hasiz eta mendeko perpausa aldiz, gaztelaniaz. Betiere hizkuntza biren estrukturak elkarren artean errespetatuz eta hizkuntzen berezko arau gramatikalak mantenduz.

#### *6.2.1.3. Esaldi barnekoa*

Azkenik esaldi barneko kode aldaketa dugu eta izenak dioen bezala, hizkuntza aldaketak perpausaren barnean agertzen dira.

20) *Confunditu* naiz baino *a que parecitzten* du egiazkoa

Adibide honekin argi ikusten da nola hasieran euskaraz hasten den, (nahiz eta kalko oker batekin hasi) gero gaztelera pasatzen den (hizkuntzen egiturak hautsi gabe, biak elkarlotzen ditu) eta azkenik esaldia amaitzeko,

berriz euskarara itzultzen den. Haurren hizkeran mota honetako adibide gehiago topatzen ditugu:

- 21) Hau *compratu* behar duzu *tienda* batean eta *de regalo* eramaten duzu beste bat
- 22) *Si tampoco* ez dira kontatu behar
- 23) *Creo que* dut gaizki baino *bueno*...
- 24) Nor *echatu* da *pedo* bat, *es que sonatu* du...
- 25) Ikusi zenuen “*la voz kids*” o joan zinen berriz *campeonatora*?
- 26) Ni ikusi dut *periodikoan que* galdu da *avioi* bat *velocidade* asko zuelako

Esaldi honetan denetatik antzeman dezakegu. Hasteko, ergatiboaren marka ez du ipini, jarraian kalko bat egiten du eta kausazko esaldian “galdu dela” aditza erabili ordez, *que* erdarazko juntagailuaz baliatzen da. Gero beste bi kalko egiten ditu –i eta –e partikulak gaztelerazko hitzei erantsiz. Dena den, nahiz eta ordena egokia ez izan eta esaldia erabat okerra izan, hizkuntzen estrukturak zaintzen ditu. Ibarrek (2008:407) *que* partikula honi buruz honakoa azaltzen du: “*en ocasiones es propio de individuos que no han asimilado la lengua completamente*”.

- 27) Nik *soñatu* dut *que conbertitzen* naiz *en una furgoneta* eta *conduzitzen* eta dut istripu bat
- 28) *Si* ematen duzu asko *pedaleei avanzatzen* duzu azkar
- 29) Hau uzten dugu *para luego*
- 30) Baina *si* zu *devolbitzen* diozu geratzen zara *peor*
- 31) Nire ama *compratzen* dit *un paquete* noiz bukatzen zait
- 32) Ez dugu *metitu un gol en la vida*
- 33) Abesten diogu *a la de tres*: bat, bi eta hiru
- 34) Nik *ya* badakit zergatik *olitzen* du *a quemau*
- 35) Niri *si olvidatzen* zait bueltatzen naiz
- 36) Egin dezaket nola *si nago en Brasil*?
- 37) *Si ya conocitzen* dizu
- 38) Nik *creitzen* dut *a Asier*
- 39) Eta *por detras* dago zerbait?

- 40) *Es que nago acostumbrada kentzera*
- 41) *Ez acercatu que nik gero ematen diot*
- 42) *Es que gainera conpetitzeko contra los de cuarto...*
- 43) *Nire ama bai zergatik dago en el paro*
- 44) *Txandal hori da del lagunak a que bai?*
- 45) *Eta zer! Guk ere nahi dugu pal final!*
- 46) *Eta zuen agujero bat en la pierna*
- 47) *Por si acaso, jarriko dut nire aitarena ere*

Adibide sorta honekin, esaldi tarteko kode aldaketaren adibide esanguratsuak antzeman daitezke. *Si, que, para, en el, nola si* eta mota horretako gaztelerazko partikulak maiz erabiltzen dituztela ikus dezakegu. Menpeko esaldien hasiera burutzeko, normalean aipaturiko partikuletara jotzen dute: “...*en la pierna.*”, “...*olitzen du a quemau.*”, “...*contra los de cuarto.*” edo “...*para luego.*” horren adibide ditugu.

